



# NAFARROAKO PARLAMENTUKO

## ALDIZKARI OFIZIALA

IX. legegintzaldia

Iruña, 2018ko apirilaren 13a

44. ZK.

### A U R K I B I D E A

A SAILA:

**Foru lege proiektuak:**

—Foru Lege proiektua, Zientzia eta teknologiari buruzkoa (3. or.).

B SAILA:

**Foru lege proposamenak:**

—Foru Lege proposamena, zeinaren bidez aldatzen baita abenduaren 27ko 18/2017 Foru Legea, toki ogasunek transferentzia arrunten bidez Nafarroako tributuetan parte hartzeko duten funtsaren zenbatekoa eta banaketa ezartzen dituen 2018. eta 2019. urteetarako. Ana María Beltrán Villalba andreak aurkeztu du (16. or.).

E SAILA:

**Interpelazioak, mozioak eta adierazpen politikoak:**

—Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Nafarroako Hezkuntza Bereziko ikastetxeen arteko koordinazio- eta lankidetzaren sare bat sor dezan, horientzako erregelamendu organiko bat taxutu dezan eta Helduarora igarotzeko programak arautu ditzan. Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioak aurkeztu du (18. or.).

—Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da berdintasunari buruzko etorkizuneko legean nahiz hezkuntza- eta lan-legedian jaso dezan janzkera-askatasuna bermatuko dela eta ez dela sexuaren araberako uniforme eraman beharra ezarriko. María Teresa Sáez Barrao andreak aurkeztu du (20. or.).

—Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da PFEZaren berrikusketa bat igor dezan Legebiltzar honetara, foru erkidegoaren lehiakortasunaren susperraldia jasoko duena. Juan Luis Sánchez de Muniáin Lacasia jaunak aurkeztu du (21. or.).

—Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Nafarroako Datu-kudeaketaren Behatokia sor dezan eta Nafarroako big data ustiapen-politika bat gara eta normaliza dezan. Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioak aurkeztu du (22. or.).

—Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da “agenda nazionalista” lehenesteari utz diezaion eta ekimenak har ditzan eta neurriak proposa ditzan Nafarroak une hau baliatze aldera bere hazkuntza ekonomikoari eta bere autonomia fiskal eta finantzarioari begira daukan ahalmen osoa optimizatzen. José Javier Esparza Abaurrea jaunak aurkeztu du (24. or.).

- Mozioa. Horren bidez, Hezkuntza Departamentua premiatzen da berariazko jarduketa plan bat egin dezan eskola-porrotari aurre egiteko eta derrigorrezko irakaskuntzetako ikasleen igarotze-tasak areagotzeko. Alberto Catalán Higuera jaunak aurkeztu du (25. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da % 0,7aren banaketa alda dezan eta Espainiako gainontzeko tokiekin berdindu dezan, Eliza Katolikoaren eta gizarte-intereseko beste xede batzuen laukitxoak markatzen diren kasuetan. Ana María Beltrán Villalba andreak aurkeztu du (26. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da osasun-zentroetan kirurgia txikiko praktika klinikoa ziurtatuko duen araudi bat presta dezan. Osasun Batzordean izapidetzea (27. or.).
- Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak bere ateak nafar guztientzat irekita izateko borondatea agertzen baitu, edozein direla ere haien sinesmen eta ideiak. Eledunen Batzarrak onetsia (27. or.).
- Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak babesten baitu “Altsasu Gurasoak” taldeko familiek deitutako manifestazioa. Eledunen Batzarrak onetsia (28. or.).

**F SAILA:****Galderak:**

- Galdera, Nafarroako Gobernuak foru parlamentarien informazio-eskariei erantzuten berandutzeari edo ez erantzuteari buruzkoa. Ana María Beltrán Villalba andreak egin du (29. or.).
- Galdera, Nafarroan erlijioa ikastorduak murrizteko komenigarritasunari buruzkoa. Ana María Beltrán Villalba andreak egin du (29. or.).
- Galdera, lan-eskaintza publiko berezian deitutako lanpostu-kopuruari buruzkoa. María Inmaculada Jurío Macaya andreak egin du (30. or.).
- Galdera, jakiteko ea zertan den honako erabaki hau: Nafarroako Gobernua premiatzen da animalien babesari eta ongizateari buruzko egungo araudia berrikus eta egunera dezan. María Teresa Sáez Barrao andreak egin du (31. or.).
- Galdera, Iruñeko espetxeko presoek osasun laguntza publiko, unibertsal eta doakoa izateko eskubideari buruzkoa. Sergio Sayas López jaunak egin du (31. or.).
- Galdera, enplegu sozial babestuko 2018ko deialdian kaltetutako toki entitatei buruzkoa. Nuria Medina Santos andreak egin du (32. or.).
- Galdera, Nafarroako Gobernuak Tafallako Errekoletoen komentuan 2018an egingen dituen inbertsioei eta jarduketan egutegiari buruzkoa. Cristina Altuna Ochotorena andreak egin du (32. or.).
- Galdera, adingabeentzako laguntza-kontratuei buruzkoa. Mónica Doménech Linde andreak egin du (33. or.).
- Galdera, “Corellako Arteak” izeneko natur monumentuari buruzkoa. Alberto Catalán Higuera jaunak egin du (33. or.).
- Galdera, N-232 errepidearen Errioxako tartean ibilgailu astunak ibiltzea debekatu izanak eragindako egoerari buruzkoa. Alberto Catalán Higuera jaunak egin du (34. or.).
- Galdera, LGTBI+ pertsonen berdintasun sozialari buruzko ekainaren 19ko 8/2017 Foru Legea betetzeari buruzkoa. Herritarrekiko eta Erakundeekiko Harremanetako Batzordean izapidetzea (35. or.).
- Galdera, 2018 eta 2019rako lan-eskaintza publikoan berdintasuneko emakume agente edo teknikari lanpostuak jasotzeko aurreikuspeni buruzkoa. Herritarrekiko eta Erakundeekiko Harremanetako Batzordean izapidetzea (35. or.).
- Galdera, sexu- eta ugalketa-osasunaren arloko prestazio sanitarioen antolamendua ezartzen duen azaroaren 16ko 103/2016 Foru Dekretuaren betetze-mailari buruzkoa. Galdera erretiratzea (36. or.).

---

**A saila:**  
**FORU LEGE PROIEKTUAK**

---

## **Foru Lege proiektua, Zientzia eta teknologiari buruzkoa.**

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2018ko apirilaren 9an egindako bilkuran, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoaren 19.1.a) artikulua aitortzen dion legegintza-ekimena erabiliz, Nafarroako Gobernuak, 2018ko martxoaren 28an hartutako Erabakiaren bidez, Zientzia eta teknologiari buruzko Foru Lege proiektua igorri dio Nafarroako Parlamentuari.

Hori horrela, Legebiltzarreko Erregelamenduko 127. artikuluan ezarritakoarekin bat, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, hona ERABAKIA:

**1.** Xedatzea Zientzia eta teknologiari buruzko Foru Lege proiektua prozedura arruntari jarraituz izapidetu dadila.

**2.** Garapen Ekonomikorako Batzordeari ematea proiektu horretaz irizpena emateko ahalmena.

**3.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Proiektua argitaratzen denetik hamabost eguneko epea irekiko da, **2018ko maiatzaren 9ko eguerdiko hamabietan** bukatuko dena. Epe horretan, Erregelamenduko 128. artikuluan ezarritakoarekin bat, talde parlamentarioek, foru parlamentarien elkarteek eta foru parlamentariet zuzenketak aurkezten ahalko dizkiote proiektuari.

Iruñean, 2018ko apirilaren 9an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

## **Zientzia eta Teknologiari buruzko Foru Lege proiektua**

### ZIOEN AZALPENA

I

Arlo desberdinetan ikerketa, garapena eta berrikuntza (I+G+b) sortzea, zabaltzea eta aplikatzea funtsezkoa da Nafarroaren aurrerakuntzarako. I+G+b-k oparotasuna areagotzen du, bizi-kalitatea hobetzen du eta sorkuntzazko konponbideak ekartzen ditu gure gizarteak dituen desafio nagusietarako.

Europar I+G+b arloan lider diren eskualdeen artean kokatzeko erronka eta gaitasuna ditu Nafarroak. Horretarako ditu hiru unibertitate, zentro teknologiko ezagunak, talentua, pertsona ekintzaileak eta enpresa berritzaileak, lagunduko dutenak halako ekoizpen eredua finkatzen non berrikuntza sistematikoki txertatuko baita ekoizpen sektorean, enpresen tamaina edozein izanik ere, eta non sektore teknologikoek garrantzia handiagoa izanen baitute.

Halaber, zientzia eta teknologiaren eta sare produktiboaren arteko lankidetzakultura garatzeko bide ematen dio Nafarroari erronka honi arakastaz heltzeko.

Aldeko baldintza horiek izanik ere, Nafarroak ez du orain arte lege esparrurik izan modu integralean sustatzeko, Nafarroan, zientzia, teknologia, ikerketa eta berrikuntza. Foru lege honek behar horri erantzuten dio, eta abiapuntu du Nafarroako gizarteak eta sektore produktiboak zientziarekin, teknologiarekin eta berrikuntzarekin duen konpromisoa.

Europako Ikerketa, Garapen eta Berrikuntzarako Politikaren eta Estrategiaren eta Zientziari, Teknologiari eta Berrikuntzari buruzko ekainaren 1eko 14/2011 Legearen esparruan kokatzen da foru lege hau. Horrekin batera, genero ikuspegia zeharkako kategoria gisa txertatzen da ikerkuntza zientifikoan eta teknikoan, prozesu-ko alderdietan kontuan hartu beharrekoa emaku-

meen eta gizonen egiazko berdintasuna bermatzeko.

## II

Foru lege honek, xedapen zatian, lau kapitulu ditu, eta xedapen gehigarri bat eta bi azken xedapen.

Lehenbiziko kapituluak ezartzen dira foru lege honen xedapen orokorrak, xedea eta helburuak jasotzen dira, eta, horiekin, bilatzen da berrikuntzaren alderdi guztietan hobekuntza izan dadila: inbertsioan, bikaintasun zientifikoan, talentuan, ezagutzen transferentzian, eragileen arteko lankidetzan eta haien eta eragile ekonomikoaren artekoan, eta I+G+b-ren nazioartekotzean.

## III

Bigarren kapituluak Nafarroako I+G+b Sistema (SINAI) arautzen du, eta hura osatzen duten baliabideak finkatu eta horien bikaintasuna sustatzen du. Haren eragileak antolatzen dira, ikerketan eta berrikuntzan egiten duten lana bikaintasunera bideratuz, aukera izan dezan hain lehiakorra den ingurune orokorrari dagokion mailan egoteko, eta Nafarroako gizartearen eta sare produktiboaren erronkei erantzuna emateko. Bikaintasuna lortzeko, honako hauek sustatzen dira: nazioarteko batzorde zientifikoak sortzea, zentroen ebaluazioa, doktoreen kopurua handitzea eta eragileen arteko elkarlan estuagoa. Horretarako, finantzaketa publikorako kontuan hartuko dira eragileen emaitza zientifikoak, transferentziakoak eta ekonomikoak.

SINAI sistema osatzen duten eragileak taxutzen dira: unibertsitateak, ikerketa zentroak, zentro teknologikoak, enpresaren arloko I+G+b unitateak, dibulgaziorako entitateak eta sistemaren koordinatzailea. Ezartzen da zer baldintza bete behar diren eragile akreditazioa lortzeko, eta haien eskubideak aitortzen eta betebeharrak ezartzen dira. Lankidetzaren, gardentasunaren eta genero berdintasunaren printzipioek gidatuko dute eragile guztien jarduketak.

I+G+b arloko jarduerak egiten dituzten Nafarroako I+G+b Sistemako (SINAI) eragileak berriaz arautzen dira: unibertsitateak, ikerketa zentroak, zentro teknologikoak eta enpresaren arloko I+G+b unitateak. Horientzat, berriazko baldintza gisa ezartzen da langile doktoreak izatea beren plantilletan, aitortzen zaie deialdi berriazkoetan parte hartzeko eskubidea eta betebeharrak berriazkoak ezartzen zaizkie.

Foru legeak estatus berriazkoa ematen dio Nafarroako I+G+b Sistemako (SINAI) eragileen koordinatzaileari, eta, harentzat, betebeharra da elkarlan akordioak edukitzea sistemako eragileen ehuneko berrogeita hamar baino gehiagorekin eta Nafarroako Espezializazio Adimentsuaren Estrategiako sektore guztietako enprekin. Eskubideak aitortzen zaizkie, eta betebeharrak berriazkoak ezartzen.

Nafarroako I+G+b Sistemako (SINAI) Eragileen Erregistroa sortzen da, eta betebeharrak gisa ezartzen da sistemako eragileen ikerketa taldeen eta ikertzaileen zerrenda eguneraturik izatea.

Nafarroako I+G+b arloko Aholku Kontseilua sortzen du foru legeak, partaidetza eta aholkularitzako organo gisa. Behar diren eginkizunak esleitzen zaizkie, Nafarroako I+G+b arloa dinamizatzeko gomendioak eta txostenak egiteko eta zientzia, teknologia eta berrikuntza plana prestatu eta haren jarraipena egiteko. Kontseilu horrek Nafarroako I+G+b arloko esparru desberdinetako ordezkariak hartzen ditu bere baitan, eta nazioartean izen ona duten pertsonak ekartzen ditu Nafarroako Espezializazio Adimentsuaren Estrategiako arlo bakoitzerako.

Halaber, Nafarroako Berrikuntzaren Behatokia sortzen da, eta agintzen zaio behar den sistema garatzea Nafarroako I+G+b Sistemaren (SINAI) informazioa hedatzeko arlo zientifiko-teknologikoan eta ekonomikoan.

## IV

Hirugarren kapituluak, behar diren neurriak jasotzen dira honako hauek bultzatzeko: ikerketa zientifiko eta teknikoak, berrikuntza, ezagutzaren transferentzia, zabalkundea, eta kultura zientifikoak, teknologikoak eta berritzaileak.

Ezartzen da zer neurri zehaztu behar diren, betiere, zientzia, teknologia eta berrikuntza plan bakoitzean, talentu zientifikoak eta ikertzaileak sustatzeko eta honako hauek bultzatzeko: ezagutzaren transferentzia, elkarlana, nazioartekotzea, jasangarritasuna, espezializazioa, bikaintasuna eta bokazio zientifiko-teknikoa piztea.

Foru lege honek, I+G+b arloa sektore pribatuak sustatzeko delak segurtatzeko, baita Nafarroako I+G+b Sistemaren (SINAI) finantzaketa eta hartan jasotako neurriak garatzeko direla ere segurtatzeko, agintzen du ezen ekitaldi bakoitzean Nafarroako Aurrekontu Orokorrak egitean behar adina baliabide esleitu daitezela I+G+b sustatzeko neurrietarako, gutxienez ere finantzarioa ez den urteko aurrekontuko ehuneko bi.

Europar Batasunak helburu gisa finkatu du barne-produktu gordinaren (BPGd) %3 izanen dela I+G+b arloko inbertsioa. Foru lege honekin, Nafarroak bere egiten du helburu hori 2030. urterako. Eta, halaber, ezartzen duen eredu desiragarrian, I+G+b arloko inbertsiorako portzentaje horren %2 sektore publikoarena da eta %1 sektore pribatuarena.

Nafarroako Aurrekontu Orokorrek gutxi gorabehera Nafarroako BPGd-aren %20 egiten dute; hortaz, I+G+b arloko inbertsio publikoa BPGd-aren %1ekoa izatea Nafarroako Aurrekontu Orokorren %5 adinakoa izatea da. Ehuneko 5 hori lortu behar da Nafarroan I+G+b arlorako erabilitako inbertsio publiko guztien baturarekin, hau da, Nafarroako Foru Komunitateak unibertsitateak eta I+G+b-ren sustapena finantzatzeko erabiltzen dituen zenbatekoak gehi Estatuak eta Europar Batasunak Nafarroan I+G+b arlorako erabiltzen dituztenak.

Nafarroako Aurrekontu Orokorretan I+G+b arloaren sustapenerako erabilitako zenbatekoa urtero handitu beharko da, harik eta, 2030. urtean, foru lege honen 17. artikuluan ezarritako finantzaketa publikoaren helburuak lortzen diren arte, zifra hauekin: zehazki 2018. urtean %1,15; 2019. urtean %1,25; 2020. urtean %1,35; 2025. urtean %1,6; eta 2030. urtean %2. I+G+b arlorako baliabide publikoak sendotzeko bide horri eusten zaiola segurtatzeko, foru lege honetako xedapen gehigarri bakarrean jaso dira sektore publikoak I+G+b arloan aldi honetan izanen dituen inbertsio helburuak.

I+G+b arloaren balio-katea segurtatuko da, existituz aurrekontu-baliabideen esleipenean behar diren neurriak jaso daitezela oinarritzko ikerketa, ikerketa aplikatua, garapena eta berrikuntza sustatzeko, horiek denek finantzaketa jaso dezaten.

Zientzia, teknologia eta berrikuntza Planarekin eta Estatuko eta Europako ikerketa politikako lehentasunezko ardatzekin bat datozen deialdi publikoen bidez banatuko dira I+G+b arloko jardueretarako laguntzak. Orobat, Nafarroako I+G+b Sistemako (SINAI) eragileentzako laguntza publikoek segurtatu beharko dute eragileen bikaintasunera bideratuko direla, eta barnean izanen dituzte, balorazio irizpide gisa, bikaintasun eta hobekuntza adierazleak.

Laguntza deialdiek sustatuko dute ikerketa proiektuak batera egin ditzatela enpresek, teknologia eta ikerketa zentroek eta unibertsitateek, transferentziari laguntzeko.

Beste aurreikuspen bat jaso da, alegia deialdien bidez finantzatzen ahalko direla Nafarroako I+G+b Sistemako (SINAI) eragileen zeharkako gastuak, Europako deialdietan finantzatzen diren zeharkako gastuen portzentajeekin bat, horrela Europako eta eskualdeetako deialdiak homogeneizatzeko, bateratuta egon daitezzen eta eragileentzat denak erakargarriak izan daitezzen lortzeko.

## V

Zientzia, teknologia eta berrikuntza Plana arautzen du laugarren kapituluak; Nafarroako I+G+b arloa planifikatu eta koordinatzeko funtsezko tresna gisa ezartzen du. Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioan I+G+b arloan eskuduna den departamentuari dagokio plana prestatzea, esku hartzen duten eragile guztien eta herritarren partehartzearekin, eta Nafarroako Gobernuari dagokio onestea. Planak berak ezartzen dituen eragileei dagokie ekintzak gauzatzea, eta Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioari dagokio jarraipena egitea.

Foru legeak ezartzen ditu Planaren gutxieneko edukiak eta jaso behar dituen lehentasunezko arloak eta arlo teknologiko-estrategikoak. Halaber, jasotzen du ezen haren finantzaketa gauzatu behar dela, Foru Komunitatearen ekarpenez gain, Estatuaren, Europar Batasunaren eta beste entitate publiko eta pribatuen ekarpenekin. Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak sektore publikoaren eta pribatuaren arteko elkarlana sustatu beharko du plana finantzatzeko.

## I. KAPITULUA Xedapen orokorrak

### 1. artikulua. Xedea.

Foru lege honen xedea da behar den esparrua ezartzea Nafarroan zientzia, teknologia, ikerketa eta berrikuntza sustatzeko.

### 2. artikulua. Helburuak.

Hauek dira foru lege honen helburuak:

1. Ongizatea eta bizi kalitatea hobetzea, gizartearen erronkak eta arazoak bideratzen laguntzeko.

2. Nafarroa lider bihurtzea I+G+b arloan, Nafarroako enpresentzat lehiazteko toki hobea lortzea, eta I+G+b arloa ardatz duen eredu produktiboa ahalbidetzea.

3. Nafarroako I+G+b Sistema (SINAI) antolatzeko, haren bikaintasuna bultzatzea eta sektore produktiboarekiko lankidetzaren areagotzea.

4. Ikerketa sustatzea maila guztietan, oinarrikoetatik hasita merkatutik hurbilen daudenetara.

5. I+G+b arloa epe luzerako baliabide ekonomiko hornituko dela bermatzea, eta horien esleipena eta erabilera koordinatzea.

6. Zientzian, teknologian eta berrikuntzan genero ikuspegia zeharkako kategoria gisa txerta dadila sustatzea, bai eta emakumeen eta gizonen presentzia orekatua ere Nafarroako I+G+b Sistemaren (SINAI) esparru guztietan.

7. Ikerketa zientifiko-teknikoen arloko prestakuntza sustatzea, maila guztietan, lanbide heziketan, unibertsitatean eta doktoregoetan, gizartearen beharrak ase eta orekatzen lagundu beharrez. Garrantzia emanen zaio bereziki emakumeak CTIM (zientzia, teknologia, ingeniari eta matematika) ikasketetan sartzeari.

8. Nafarroan ikerketarako talentua ziurtatzea, egun dagoena kudeatuz, berria erakarri, eta ikerlari, zientzialari eta teknikari berriak trebatuz.

9. Enpresaren eta ekintzailetzaren munduan ekimen berritzaile gehiago sortzen laguntzea, oinarri teknologikoarekin, ikerketaren emaitzetan oinarriturik.

10. Lankidetzaren sustatzea, eta ikerketaren ezagutzaren transferentzia egiten laguntzea, Nafarroako I+G+b Sistematik (SINAI) sare produktibora.

11. Nafarroan egiten den I+G+b nazioarteko-tzen laguntzea, bai enpresetan bai Nafarroako I+G+b Sistemako (SINAI) eragileetan egiten dena.

12. Zientziaren dibulgazioari laguntzea, eta zientziarentzat eta ikerketarentzat lagungarria den ingurunea sustatzea, gizartean zientziaren, ikerketaren eta berrikuntzaren balioaz dagoen pertzepzioa hobetzeko, garapen ekonomiko eta sozialerako eragile gisa ikus daitezela.

13. Zientzia, teknologia eta berrikuntza politika eta planak Estatuako Administrazio orokorrekoekin eta Europar Batasunekoekin koordinatzen laguntzea.

## II. KAPITULUA

### Nafarroako I+G+b Sistema (SINAI)

**3. artikulua.** Nafarroako I+G+b Sistema (SINAI).

1. Honako hauek osatzen dute Nafarroako I+G+b Sistema (SINAI): haren parte diren eragile publiko eta pribatu guztiak, eta horrekin batera, erlazioak, koordinazio egiturak eta elkarlanerako lanabesak, Nafarroan ikerketa, transferentzia,

balorizazio eta berrikuntza arloko politikak planifikatzea, kudeatzea, betetzea eta haien jarraipena egitea ahalbidetzen dutenak.

2. Honako hauek dira Nafarroako I+G+b Sistemako eragileak: sistema horretan finantzaketa, exekuzio edo koordinazio eginkizunak betetzen dituzten eragile publiko eta pribatu guztiak.

3. Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak eta bertako sektore publikoko entitate instrumentalek koordinazioko eragileen izaera hartuko dute ikerketa, balorizazio, transferentzia edo berrikuntza arloko ekintza komunak egiteko bitarteko eta baliabideen erabilera metodikoaren edo hitzartzearen eginkizunak betetzen dituztenean, Nafarroako I+G+b Sistemako eragileen arteko informazio ematea, haien jarduketan homogeneitatea eta ekintza bateratua errazteko.

4. Exekuzioko eragileak dira ikerketa, balorizazio, transferentzia edo berrikuntza lanak egiten dituzten edo haiei laguntza ematen dieten entitate publiko eta pribatuak.

5. Finantzaketako eragileak dira administrazio publikoak, sektore publikoko entitate instrumentalak, unibertsitateak eta entitate pribatuak, beste eragile batzuek egindako ikerketa, balorizazio, transferentzia eta berrikuntza lanen gastuak edo kostuak ordaintzen dituztenean, edo jarduera horiek egiteko behar diren baliabide ekonomikoak jartzen dituztenean.

6. Nafarroako I+G+b Sistemako eragileetako bakoitzak dauzkan eginkizun berariazkoak eta parte-hartzea ezertan ukatu gabe, sistema horren barruan Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak bere gain hartuko du ikerketaren, balorizazioaren, transferentziaren eta berrikuntzaren emaitzen zabalkundearen koordinazioa, bai eta jarduera horiek eta eragileen balioari esparru sozialean, hezkuntzakoan eta ekonomikoan aitortza egitea sustatzeko lana ere, Estatuak ikerketa zientifiko eta teknikoaren koordinazio orokorraren arloan duen eskumena onartuta.

**4. artikulua.** Nafarroako I+G+b Sistemako (SINAI) exekuzioko eragileen akreditazioa.

1. Nafarroako I+G+b Sistemako eragile gisa sartu ahal izateko, eragileek frogatu behar dute hauek bat direla: unibertsitatea, ikerketa zentroa, zentro teknologikoa, enpresaren arloko I+G+b unitatea, eragileen koordinatzailea eta entitate bakanak.

Foru lege honen ondorioetarako, honela ulertuko dira termino hauek:

a) Ikerketa zentroa: oinarritzko eta bikaintasuneko ikerketa entitatea, bere jarduerak garatzen dituen interes zientifikoa duten esparruetan.

b) Zentro teknologikoa: ikerketa entitatea, funtsean teknologia sortzen, garatzen eta enpresarera transferitzen duena.

c) Enpresaren arloko I+G+b unitatea: ikerketa entitatea, funtsean garapen esperimentalean aritzen dena bereziki, eta bere enpresa titularren I+G+b arloko beharrak betetzera bideratua.

d) Entitate bakanak: dibulgaziorako entitatea, funtsezko eginkizuna duena gizartean ezagutzaren hedapena sustatzea, esaterako ezagutzaren transferentzia Nafarroako I+G+b Sistemako (SINAI) eragileen artean, edo, aurreko moten artean ez egonik ere, I+G arloarekin lotutako beste entitate batzuen artean.

e) Nafarroako I+G+b Sistemako (SINAI) exekuzioko eragileen koordinatzailea da sistemaren exekuzioko eragile guztien koordinazioa egiten duen eragilea, eta Nafarroako zientzia, teknologia eta enpresaren arteko erlazioa dinamizatzen duena.

2. Nafarroako I+G+b Sistemako (SINAI) eragilearen akreditazioa lortzeko, entitate eskatzaileek honako beharkizun hauek bete beharko dituzte:

a) Helburu gisa izatea I+G+b egitea, koordinatzea edo dibulгатzea.

b) Legez eraturik egotea eta nortasun juridiko propioa izatea, izaera publikoa nahiz pribatua izan.

c) Estatutuetan ezarri izatea ez duela irabazi-asmorik, eta mozkinik izanez gero I+G+b arloko jardueretarako bakarrik erabiliko direla.

d) Nafarroan kokaturik egotea, eta jarduera nagusia bertan garatzea.

e) Beren kontabilitatean bereiztea jarduera ekonomikoa eta ez ekonomikoa, eta bereiz kontsignatzea bakoitzari dagozkion finantzaketa, kostuak eta sarrerak.

3. Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioan I+G+b arloan eskuduna den departamentuari dagokio akreditatzeko prozedura ezartzea eta akreditazio horien jarraipena egitea.

**5. artikulua.** Nafarroako I+G+b Sistemako (SINAI) exekuzioko eragileen eskubideak eta betebeharrak.

1. Nafarroako I+G+b Sistemako (SINAI) exekuzioko eragileek honako eskubide hauek dituzte:

a) I+G+b arloetako jardueretarako laguntza programa eta deialdietan parte hartzea, parte hartzeko eta/edo laguntza lortzeko beharkizun berriazkoa denean sistemako eragile akreditatua izatea.

b) Sistemako eragile guztien ikerketa azpiegiturak erabili ahal izatea lehentasunezko baldintzetan.

c) Nazioarteko talentua erakartzeko programe-tan, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak kudeatzen dituenetan, parte hartu ahal izatea.

d) Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren ziurtagiri bat lortzea noiznahi ere, sistemako eragile akreditatua dela dioena.

e) Eragile akreditatu izatearen aitortza publiko instituzionala izatea. Horretarako, foru lege honen 9. artikuluan araututako erregistroan sartu beharko du.

2. Nafarroako I+G+b Sistemako (SINAI) exekuzioko eragileek honako betebeharrak dituzte:

a) Lankidetzarena:

1. Sistemako gainerako eragileekin elkarlanean aritzea, I+G+b arloko emaitzak optimizatzeko, I+G+b arloko proiektuak eginez, tesietan baterako zuzendaritza izanez edo masterreko bukaerako baterako proiektuak batera eginez, dibulgazio ekitaldien bidez eta enpresarako edo gizarterako ekitaldiak batera eginez.

2. I+G+b arloko azpiegiturak Nafarroako I+G+b Sistemaren (SINAI) esku jartzea, ahalik eta baldintza onenetan.

b) Gardentasunarena:

1. Nafarroako Foru Komunitateari eta Nafarroako Berrikuntzaren Behatokiari ematea eskatzen zaizkion txostenak, Nafarroako I+G+b Sistemaren (SINAI) esparruan egindako jardueri buruz, eta estatutuetan eta gobernu organoetan dituzten aldaketan berri ematea.

2. Eragileen ardura handieneko postua, zuzendari nagusia edo antzekoa, prozesu ireki, ez baztertzaila eta garden baten bidez hautatuko da, non baloratuko baitira doktore titulua izatea zentroaren I+G+b arloren batean, master bat enpresen zuzendaritza eta administrazioan, argitalpenak, patenteak eta arloan nazioarteko esperientzia. Hautapena eragile horien zuzendaritza organoek egiten dute, eskudantzia hori baldin badute, eta batzorde zientifiko-teknologikoak ere parte hartuko du, organo hori dagoen kasuan. Hautapen prozesu horretan kontuan hartuko da

emakumeen eta gizonen presentzia orekatua izatea, eta eragileek frogatu beharko dute postu horiek betetzeko izangaien zerrendan sexuetako bakoitzak gutxienez %40ko ordezkaritza duela, salbu eta muntazko arrazoi objektiboak daudenean, behar bezala justifikatuak. Unibertsitateek ez dute betebeharrak hori bete beharrik.

c) Berdintasunarena: emakumeen eta gizonen arteko berdintasun plan bat izatea, Emakumeen eta Gizonen Berdintasun Eragingarrirako martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoaren IV. tituluko III. kapituluaren ezarritako irismenarekin eta edukiarekin egina eta aplikatua, eta lan arloko legerian adierazitako moduan negoziatua.

**6. artikulua.** Unibertsitateak, ikerketa zentroak eta zentro teknologikoak.

1. Nafarroako I+G+b Sistemako (SINAI) I+G+b arloko jarduerak egiten dituzten exekuzioko eragile gisa akredita daitezke unibertsitateak, ikerketa zentroak eta zentro teknologikoak. Akreditazioa lortzeko, 4. artikuluan eskatutako baldintzak betetzeaz gain, honako hauek ere bete beharko dituzte:

a) Ikertzaile doktoratuak izatea plantillan, emakumeen eta gizonen presentzia orekatuaren printzipioa aintzat hartuta.

b) I+G+b arloko proiektuak egitea.

c) Nazioarteko I+G+b arloko proiektuetan parte hartzea.

2. Unibertsitateek, ikerketa zentroek eta zentro teknologikoek eskubide hauek izanen dituzte:

a) Nafarroako I+G+b Sistemako (SINAI) eragileek berez dituzten eskubide guztiak.

b) Laguntza deialdi berariazkoetan parte hartzea.

3. Nafarroako I+G+b Sistemako (SINAI) eragileek berez dituzten betebeharrak gain, unibertsitateek, ikerketa zentroek eta zentro teknologikoek honako hauek ere izanen dituzte:

a) Bikaintasun betebeharrak:

1. Aholku emateko nazioarteko batzorde zientifiko-teknologiko bat izatea, urtero zentroa baloratzeko duena eta zuzendariaren hautapenean parte hartzen duena.

2. Plantillan behar den doktore portzentajea izatea akreditazioari eusteko. Gutxienez ere langile tekniko eta ikertzaileen ehuneko hamar izanen dira.

3. Nafarroako I+G+b Sistemako (SINAI) eragileen akreditazioa lortzeko baldintzak betetzea.

4. Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak sustatutako aldi behingo ebaluazioak onartzea.

5. Bere ikertzaileen jarduerak zientifikoa neuritzea, baloratzea eta saritzea.

b) Gardentasun betebeharrak:

1. Eragileen arteko elkarlana irakaskuntzan, prestakuntzan eta tesien kozuzendaritzan.

2. Eragileen arteko ikertzaileen trukea sustatzea.

3. Enpresaren sektorerako ekitaldi eta prestakuntzak antolatzea eta horietan parte hartzea.

4. Enpresen sektorearekin I+G+b arloko proiektuak egitea.

5. Enpresen sektorean ikertzaileen transferentzia sustatzea.

6. Eragileen proiektuen, jardueren eta emaitzen hedapena egitea.

7. Bere ikertzaileen transferentzia-jarduerak neurtzea, baloratzea eta saritzea.

c) Gardentasun betebeharrak: Interneten eguneratuta eta argitaratuta izatea ildo estrategikoak, indarreko zientzia, teknologia eta berrikuntza planen ezarritako adierazleak, kontu auditatuak, giza baliabideei buruzko politika eta aurreko urteko jardueren memoria eta memoria ekonomikoa, non zehaztuko baitira eskura dagoen ikerketetarako azpiegitura, ikerketa taldeak eta/edo ildoak, horien lan arloak eta emaitzak. I+G+b arloko proiektuak, jarduerak eta emaitzak hedatu, argitaratu eta zabaltzeko ekintzetan hizkera ez sexista erabili beharko da, emakumeenganako bereizkeria islatzen duen irudi oro edo estereotipo sexistak saihestu, eta emakumeen eta gizonen arteko berdintasunari, presentzia orekatuari eta rolen pluraltasunari lotutako balioak dituen irudia sustatu beharko da.

d) Finantzaketa dibertsifikatua izatea, eta gutxienez ere izatea finantzaketa publikoa, eskualdekoa, Europakoa, nazionala, eta finantzaketa pribatua.

**7. artikulua.** Enpresaren arloko I+G+b unitateak.

1. Nafarroako I+G+b Sistemako (SINAI) I+G+b arloko jarduerak egiten dituzten exekuzioko eragile gisa akredita daitezke enpresaren arloko I+G+b unitateak. Akreditazioa lortzeko, 4. artikuluan eskatutako baldintzak betetzeaz gain, honako hauek ere bete beharko dituzte:



a) Plantillan ikertzaile doktoreak izatea.

b) I+G+b arloko proiektuak egitea.

c) Entitateko enpresa titularrek teknologia eta berrikuntza erabil dezaten sustatzea, haien lehiakortasuna hobetzeko tresna den aldetik.

2. Nafarroako I+G+b Sistemako (SINAI) eragileek berez dituzten eskubideez gain, enpresaren arloko I+G+b unitateek honako hauek ere izanzen dituzte:

a) Laguntza deialdi berariazkoetan parte hartzea.

b) Haien enpresa titularrek ezartzen diren zerga beharpen berariazkoak izatea.

3. Nafarroako I+G+b Sistemako (SINAI) eragileek berez dituzten betebeharez gain, enpresaren arloko I+G+b unitateek honako hauek ere izanzen dituzte:

a) Teknologia sortu eta garatzea.

b) Eraitzen merkataritza ustiapena egitea, patenteak sortuz, oinarri teknologikoko enpresa berritzaileak sortuz edo produktu eta prozesu berriak garatuz.

**8. artikulua.** Nafarroako I+G+b Sistemako (SINAI) exekuzioko eragileen koordinatzailea.

1. Nafarroako I+G+b Sistemako (SINAI) exekuzioko eragileen koordinatzaile gisa akreditatzeko, 4. artikuluan eskatutako beharkizunak betetzeaz gain, honako hauek ere bete beharko ditu:

a) Elkarlan akordioak edukitzea Nafarroako I+G+b Sistemako (SINAI) eragileen ehuneko berrogeita hamar baino gehiagorekin.

b) Elkarlan akordioak edukitzea Nafarroako Espezializazio Adimentsuaren Estrategiako sektore guztietako enpresekin.

c) Bere gobernu organoetan honako hauen ordezkaritza izatea: Nafarroako I+G+b Sistemako (SINAI) eragileak, sektore pribatua eta Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioa.

2. Nafarroako I+G+b Sistemako (SINAI) exekuzioko eragileen koordinatzaileak honako eskubide hauek ditu:

a) Nafarroako I+G+b Sistemako (SINAI) eragileek berez dituzten eskubide guztiak.

b) Laguntza deialdi berariazkoetan parte hartzea, parte hartzeko eta/edo laguntza lortzeko beharkizunetako bat denean exekuzioko eragileen koordinatzailea izatea.

4. Nafarroako I+G+b Sistemako (SINAI) exekuzioko eragileen koordinatzaileak honako eginkizun hauek ditu:

a) Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren aurrean Nafarroako I+G+b Sistemako (SINAI) eragileen solaskide gisa aritzea.

b) Nafarroako I+G+b Sistemako (SINAI) eragileen ebaluazio prozesua antolatzea, bikaintasunera bidean hobetzen joan daitezen laguntzeko.

c) Nafarroako I+G+b Sistemako (SINAI) eragileen bikaintasuna hobetzeko laguntza, honako hauen bidez: jardunbide egokiak, nazioarteko batzorde zientifiko-teknikoak hautatzen laguntzea, Europako proiektu eta sareetan parte hartzen laguntzea.

d) Nafarroako I+G+b Sistemako (SINAI) eragileen lankidetzak hitzarmenak sustatzea, beren bikaintasuna, gaitasunak eta lehiakortasuna hobetzeko.

e) Nafarroako azpiegitura zientifiko-teknikoen datu-basea eta haren erabilera partekatua kudeatzea.

f) Nafarroako I+G+b Sistemako (SINAI) eragileen I+G+b arloko argitalpen eta proiektuen gordailu bat kudeatzea, kontuan hartuta hizkera ez sexista erabili beharko duela, emakumeenganako bereizkeria islatzen duen irudi oro edo estereotipo sexistak saihestu, eta emakumeen eta gizonen arteko berdintasunari, presentzia orekatuari eta rolen pluraltasunari lotutako balioak dituen irudia sustatu.

g) Nafarroako I+G+b Sistemak (SINAI) enpresei eta gizarteari buruz duen ezagutza hobetzea, baita bere eragileei eta horien gaitasunei buruzkoa ere.

h) Nafarroako eragile eta enpresen arteko elkarlaneko eta transferentziako I+G+b proiektuak koordinatzea.

i) Dibulgazio zientifiko-teknikoko ekitaldiak eta sariak antolatzea.

j) Laguntza ematea homogeneizatzeko eta eskualdeko, nazioarteko eta Europako administrazioak eskatutako estandarretara egokitzeko, eta ekonomia, giza baliabideak eta eragileak kudeatzeko sistemak hobetzeko.

k) I+G+b arloa dinamizatzea, bai Nafarroako I+G+b Sistemak (SINAI) bai enpresen sektorean.

l) Nafarroako I+G+b Sistemako (SINAI) eragileak Nafarroako lurraldetik kanpo daudenean, horien presentzia dinamizatzea, eta informazioa

ematea, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioarekin batera.

m) Zaintzea Nafarroako I+G+b Sistemako (SINAI) eragileek betetzen dituztela emakumeen eta gizonen berdintasunaren aldeko neurriak, foru lege honetan jasotzen direnak.

**9. artikulua.** Nafarroako I+G+b Sistemako exekuzioko eragileen Erregistroa (RASNI).

1. Nafarroako I+G+b Sistemako exekuzioko eragileen Erregistroa (RASNI) sortzen da. Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioan I+G+b arloan eskuduna den departamentuaren menpe egonen da.

2. Departamentu horrek kudeatuko du erregistro hori, eguneraturik eta osorik izatearren Nafarroan I+G+b arloan aritzen diren entitateen zerrenda. Horretarako, aldian behin eragileen ebaluazioak eginen ditu, eta betebeharrak eta errendimendu maila betetzen dituztela ziurtatuko.

**10. artikulua.** Nafarroako I+G+b Sistemako (SINAI) exekuzioko eragileen ikertzaileak eta ikertzaile taldeak edo ikerketa ildoak.

1. Nafarroako I+G+b Sistemako (SINAI) exekuzio eragileen Erregistroan eguneraturik edukiko da zerrenda bat non bertako entitateen ikertzaileak eta ikertzaile taldeak edo ikerketa ildoak jasoko baitira.

2. Ikertzaile taldeak eta ikertzaileak zer entitatean aritzen diren, entitate horietako bakoitzaren erantzukizuna izanen da Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioari komunikatzea zerrenda eguneraturik izateko behar den informazioa.

**11. artikulua.** Nafarroako I+G+b arloko Aholku Kontseilua.

1. Nafarroako I+G+b arloko Aholku Kontseilua sortzen da, I+G+b arloarekin lotutako aferetarako partaidetza eta aholkularitzako organo gisa.

2. Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioan I+G+b arloan eskuduna den departamentuari atxikirik egonen da Nafarroako I+G+b arloko Aholku Kontseilua.

3. I+G+b arloan eskuduna den departamentuko kontseilariak, aholku kontseiluak berak proposatu eta kideen gehiengo kualifikatuak onetsi ondoren, foru agindu baten bidez onetsiko du haren antolaketa eta jarduneko erregelamendua, kalitatearen, independentziaren eta gardentasunaren printzipioetan oinarrituta.

**12. artikulua.** Nafarroako I+G+b arloko Aholku Kontseiluaren eginkizunak.

Nafarroako I+G+b arloko Aholku Kontseiluak eginkizun hauek beteko ditu:

a) Zientzia, teknologia eta berrikuntza Plana prestatzeko edo berrikusteko prozesuan, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak kontuan hartzeko moduko gomendioak egitea.

b) Nafarroako I+G+b Sistemako (SINAI) eragileei gomendioak ematea helburuak hobeki lortzeko.

c) Nafarroako I+G+b arloan jarduteko eta dinamizatzeko proposamenak egitea.

d) Zaintzea betetzen direla emakumeen eta gizonen berdintasunaren aldeko neurriak, foru lege honetan jasotzen direnak, eta horretarako gomendioak egitea Administrazioari eta Nafarroako I+G+b Sistemako (SINAI) eragileei.

**13. artikulua.** Nafarroako I+G+b arloko Aholku Kontseiluaren osaera.

1. Nafarroako I+G+b arloko Aholku Kontseiluak kide hauek izanen ditu:

a) Nafarroako unibertsitate bakoitzak proposatutako pertsona bat.

b) Nafarroako Espezializazio Adimentsuaren Estrategiaren arlo bakoitzeko pertsona bat, Nafarroako I+G+b Sistemako (SINAI) eragileek proposaturik.

c) Zientzia, teknologia eta berrikuntza planean ezarritako Espezializazio Adimentsuaren Estrategiaren arlo bakoitzeko pertsona bat, I+G+b arloan nazioarteko izen ona eta sinesgarritasuna dituen, ahal dela arlo teknologiko horretan puntakoa den herrialde batean aritzen dena. I+G+b arloan eskumena duen zuzendaritza nagusiak proposatuko du.

d) Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioan I+G+b arloan eskuduna den departamentuko pertsona bat.

e) Kanpo ekintzaren arloan eskuduna den departamentuko pertsona bat.

f) Nafarroako I+G+b Sistemako (SINAI) eragileen koordinatzaileak izendatutako pertsona bat.

g) Funtzionarioen artean izendatutako pertsona bat, kontseiluko idazkari lanak beteko dituen, hitzarekin baina botorik gabe.

2. Pertsona horiek izendatzean kontuan hartuko da emakumeen eta gizonen presentzia orekatzeko izatea; hau da, sexu bakoitzeko pertsonen

kopurua ez da izanen kopuru osoaren ehuneko hirurogeitik gorakoa ez eta berrogeitik beherakoa ere.

3. I+G+b arloan eskuduna den departamentuaren titularrari dagokio I+G+b arloko Aholku Kontseilua osatuko duten pertsonak izendatzea.

4. I+G+b arloko Aholku Kontseiluko lehendakaria eta lehendakariordea bere kideen artean aukeratu dituzte Kontseiluko kideek.

5. Nafarroako I+G+b arloko Aholku Kontseiluko kide izatea ez da ordainduko, baina joan-etorrien eta egonaldien gastuak ordainduko zaizkie artikulu honen 1. apartatuko c) letran aipatzen direnei.

**14. artikulua.** Nafarroako Berrikuntzaren Behatokia.

1. Nafarroako Berrikuntzaren Behatokia Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioan I+G+b arloan eskuduna den departamentuari atxikia dagoen organo teknikoa da, eta, Nafarroako Estadistika Institutuarekin koordinatuta, informazio sistema bat garatuko du, ahalbidetuko duena Nafarroako I+G+b Sistemako (SINAI) eragileek duten informazioa eskuragarri jartzea. Behatokiak datuak bildu, tratatu eta zabalduko ditu sexuen arabera bereizita.

2. Helburu hori lortzeko, Nafarroako I+G+b Sistemako (SINAI) eragileek laguntza emanen dute, I+G+b arloko beren jarduketari buruz Behatokiak eskatzen dien informazioa emanez.

3. Behatokiak informazio zientifiko-teknologiko hau emanen du argitara:

a) Gaurkotasuna duten berri zientifiko-teknologikoak.

b) Joera zientifiko-teknologikoak eta etorkizuneko beharrak.

c) Nafarroako I+G+b Sistemako (SINAI) eragileen jardura eta gaitasun zientifiko-teknologikoak, barnean direla eragileen erregistroan (RASNI) jasotako ikerketa taldeak.

d) Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak finantzaturako ikerketa, garapen eta berrikuntza proiektuen laburpena.

e) Zientziaren, teknologiaren eta berrikuntzaren arloan genero berdintasunarekin lotuta dauden albisteak.

4. Nafarroako Foru Komunitateko I+G+b arloari buruzko informazio ekonomikoa argitaratuko du Behatokiak. Betiere, honako hau argitaratu behar du:

a) Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioan I+G+b arloaren finantzaketara bideratutako aurrekontua eta aurrekontuko partidak.

b) I+G+b arloari dagozkion zerga onurak.

c) I+G+b arloko mezenasgoan erabiltzen diren zenbatekoak, mezenasak aldeztu aurretik baimenduta.

### III. KAPITULUA

#### **Ikerketa zientifiko eta teknikoa, ezagutzaren transferentzia, hedapena eta zientziaren, teknologiaren eta berrikuntzaren kultura bultzatzea**

##### **15. artikulua.** Neurriak.

1. Foru lege honen xedea eta helburuak betetzeko, gauzatuko dira zientzia, teknologia eta berrikuntza plan bakoitzean zehaztutako neurriak, besteak beste hauek:

a) Zientziako eta ikerketako talentua sustatzeko neurriak, honako hauen bidez: doktorego aurreko eta ondoko bekak, industriako doktorego-tarako laguntzak, talentua erakartzeko laguntzak, ikertzaileen mugikortasunerako laguntzak eta I+G+b proiektuak egiteko ikertzaileak eta teknika-riak kontratatuzko laguntzak.

b) Ezagutzaren transferentzia honako hauen bidez sustatzeko neurriak:

1. Nafarroako I+G+b Sistemako (SINAI) eragileen eta enpresen arteko I+G+b arloko transferentziarako proiektuak.

2. Nafarroako I+G+b Sistemako (SINAI) iker-tzaileak enpresa-sarera transferitzea.

3. Nafarroako I+G+b Sistemako (SINAI) eragileek oinarri teknologikoko enpresa berriak sortzea.

c) I+G+b arloko elkarlaneko proiektuak sustatzen dituzten neurriak.

d) Nafarroan egindako I+G+b-ren nazioarteko-tzea sustatzen duten neurriak, hauen bitartez:

1. Nafarroako I+G+b Sistemako enpresa eta eragileei laguntzea, nazioarteko I+G+b arloko proiektuetan parte hartzeko.

2. Ikertzaileen mugikortasunerako laguntzak.

3. Nazioarteko ikerketa sare eta foroetan parte hartzea.

e) Sistemaren efizientzia sustatzen duten neurriak, laguntzak emanez I+G+b arloko azpiegiturak eskuratzeko eta partekaturik erabiltzeko, eta azpiegitura zientifiko-teknologiko bakanak (ICTS) erabiltzeko.

f) Espezializazioa sustatzen duten neurriak, laguntzak emanez Nafarroako I+G+b Sistemako (SINAI) eragileen eta enpresen arteko elkarlaneko I+G+b proiektu estrategikoak garatzeko, ebatziko baitituzte gizartearen erronka zientifiko-teknologikoak, zientzia, teknologia eta berrikuntza planetan Nafarroarentzat lehentasunezko zatitzat identifikatutako arloetan.

g) Bikaintasuna sustatzen duten neurriak, laguntza berariazkoak emanez Nafarroako I+G+b Sistemako (SINAI) eragileei, bikaintasunaren adierazle hobekuntza baloratuz, esaterako argitalpenak, patenteak, transferentzia, nazioartekotzea eta industriarekin egindako kontratuak.

h) Bokazio zientifiko-teknikoen pizgarri diren neurriak, ikasketa zientifiko-teknikoko prestakuntza sustatuz, indar berezia eginez emakumeen artean, bai eta gizarte guztiari zuzendutako dibulgazio zientifikoa ere.

i) Beste berrikuntza programa batzuekin sinergia izatea errazten duten neurriak, bai Estatuko bai Europako programei dagokienez, eta beste neurri batzuk, Nafarroako eragileak zabalik egon daitezten eta elkarlana izan dezaten Europar Bata-suneko beste eragile batzuekin, elkarlana bultzatzeko eta balio-kateak sortzeko, espezializazio adimentsuaren estrategiak oinarri.

j) Zientzian, teknologian eta berrikuntzan genero ikuspegia zeharkako kategoria gisa txertatzeko neurriak, bai eta emakumeen eta gizonen presentzia orekatua ere Nafarroako I+G+b Sistemaren (SINAI) esparru guztietan.

2. Aipatutako neurriak neutraltasunaren printzipioa oinarri harturik garatuko dira; printzipio horren arabera, neurri horien aplikazio eremua orokorra izanen da, eta ez da diskriminaziorik izanen eragileen atxikipenarengatik edo horien forma juridikoarengatik.

#### **16. artikulua.** Lankidetzaren hitzarmenak.

1. Lankidetzaren hitzarmenak sustatuko dira, Zientziari, Teknologiarri eta Berrikuntzari buruzko ekainaren 1eko 14/2011 Legeak ezarri bezala, Nafarroako I+G+b Sistemako (SINAI) eragileen eta beste eragile publiko edo pribatu batzuen artean, baldin nazioko, nazioz gaindiko edo atzerriko ikerketa zientifikoko eta teknikoko jarduerak egiten badituzte.

2. Hitzarmen horietan eragileen artean ikerketaile trukea izatea sustatuko da.

#### **17. artikulua.** Finantzaketa publikoa.

1. I+G+b lege honetan aurreikusitako esparruetan sustatzeko, Nafarroako Gobernuak, aurre-

kontu orokorrak prestatzean, urtero handituko ditu I+G+b arloa sustatzeko neurrietara bideratutako zenbatekoak, harik eta 2030. urtean, gutxienez ere urteko aurrekontuko ehuneko bi erabili arte. Horretarako, zientzia, teknologia eta berrikuntza Planeko aurrekontuko parte diren zenbatekoak bakarrik zenbatuko dira.

2. I+G+b arloan eskuduna den departamentua arduratuko da aurrekontu hori kudeatzeaz honako hau arabera: Nafarroako Espezializazio Adimentsuaren Estrategia, zientzia, teknologia eta berrikuntza Plana eta Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren departamentu bakoitzak ezarritako lehentasunak, zientzia, teknologia eta berrikuntza planean jaso zirenak hura egin bitartean.

#### **18. artikulua.** I+G+b balio-katea.

I+G+b-ren balio-katea segurtatzeko, Nafarroako Foru Komunitatean I+G+b arloan eskuduna den departamentuak I+G+b arloan dagoen aurrekontua banatuko du, oinarritzko ikerketa eta ikerketa aplikatua, garapena eta berrikuntza sustatzeko neurrien artean, halako moduz non bakar bat ere ez den finantzaketarik gabe geldituko.

#### **19. artikulua.** Mezenasgoa.

Ikerketaren eta berrikuntzaren arloko mezenasgoa sustatuko du Nafarroako zerga sistemak.

#### **20. artikulua.** Fiskalitatea.

Sektore pribatuko I+G+b arloa pizteko, zerga sistema diseinatzean kontuan hartuko dira Nafarroako I+G+b arloan duen kokapena hobetzen laguntzen duten printzipioak.

**21. artikulua.** I+G+b-rako laguntzen deialdi publikoak.

1. I+G+b arloko jardueren laguntzak deialdi publikoaren bidez emanen dira oro har.

2. Nafarroako zientzia, teknologia eta berrikuntza Planarekin eta Estatuko nahiz Europako ikerketa politikako lehentasunezko ardatzekin bat egin beharko dute deialdiek, eta bultzatuko dute Estatuko edo Europako beste funts batzuekin sinergia izatea. Esparru honetan genero arrakala desagertzera bideratutako klausulak ere jasoko dituzte.

3. Deialdi horien bidez, gizartearen behar eta erronkei erantzuten dieten eragileak, ikertzaileak, proiektuak edo azpiegiturak finantzatzeko dira; zientzia, teknologia eta berrikuntza Planean ezarritakoak izanen dira behar eta erronka horiek.

4. Transferentzia bultzatzeko, laguntzen bidez sustatuko da ikerketa proiektuak batera egin di-

tzatela enpresek, teknologia zentroek eta ikerketa zentroek eta unibertsitateek.

5. I+G+b arloko sistemako eragileen zeharkako gastuen portzentaje bat finantza dezakete deialdiek, Europako deialdiek finantzatzen dituzten gastuen portzentajeekin bat.

**22. artikulua.** Nafarroako I+G+b Sistemako (SINAI) eragileentzako laguntza deialdiak.

1. Nafarroako I+G+b Sistemako (SINAI) eragileen bikaintasunerako orientazioa segurtatzeko, eragile horientzako laguntza publikoen deialdi guztietan, balorazio irizpide gisa erabiliko dira bikaintasun eta hobekuntza adierazleak, gutxienez ere honako hauek jasoko dituztenak: plantillako doktore kopurua, argitalpenak, patenteak, sortutako oinarriko teknologikoko enpresak, industriarekin I+G+b arloan izandako proiektuen fakturazioa, lortutako Europako finantzaketa, eta zientzia, teknologia eta berrikuntzarako indarreko Planean ezarritako gainerako adierazleak.

2. Nafarroako I+G+b Eragileen Sistemako (SINAI) iraunkortasuna segurtatzeko, I+G+b proiektuetarako, ekipamenduko inbertsioetarako eta hedapen eta dibulgazio zientifikoko jardueretarako laguntzen deialdiez gain, beste deialdi batzuk ezartzen ahalko dira, errendimenduaren arabera, laguntza oinarrikoetarako deialdiak, ekonomikoa ez den jarduera osorik ere finantzatzeko, zentroaren bikaintasuna eta ikerketarako gaitasuna eta transferentziakoa kontuan hartuta.

#### IV. KAPITULUA

##### Zientzia, teknologia eta berrikuntza plana

**23. artikulua.** Zientzia, teknologia eta berrikuntza plana.

1. Nafarroako zientzia, teknologia eta berrikuntza Plana ezartzen da Nafarroako I+G+b arloko politikak planifikatu eta koordinatzeko funtsezko tresna gisa.

2. Nafarroako zientzia, teknologia eta berrikuntza Planaren xedea izanen da helburuak ezartzea Nafarroako I+G+b-ren esparruetan epealdi zehatz batean, eragileen eta eskuragai dauden baliabideen koordinazioa eta nazioko eta nazioarteko planekin bat egitea.

3. Oro har, lau urtekoa izanen da planaren indarraldia.

**24. artikulua.** Zientzia, teknologia eta berrikuntza Plana egitea.

1. Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioan I+G+b arloan eskuduna den departamentua-

ri dagokio zientzia, teknologia eta berrikuntza Plana egitea.

2. Nafarroako Foru Komunitateko Administrazio departamentuek eta sektore publikoko entitateek, nor bere esparruan, proposatuko dute zer ekintza sartu zientzia, teknologia eta berrikuntza Planean.

**25. artikulua.** Zientzia, teknologia eta berrikuntza Planaren helburuak.

Nafarroako zientzia, teknologia eta berrikuntza Planak helburu hauek izanen ditu:

1. I+G+b-ren bikaintasuna, transferentzia, lankidetzeta, nazioartekotzea eta dibulgazioa sustatzea, une bakoitzeko egoerara egokituz eta gizarteak une bakoitzean eskatzen dituen erronkei erantzunez, modu orekatuan babestuz oinarriko ikerketa eta ikerketa aplikatua.

2. Nafarroako I+G+b Sistemako (SINAI) eragileen bikaintasun maila hobetzea, bikaintasun adierazleak ezarriz eta ezagutza berria sortzeko bitartekoak emanez.

3. Etorkizunari aurea hartzea eta sare produktiboa eta Nafarroako I+G+b Sistemako (SINAI) eragileak bideratzea behar diren teknologietara, halako moduz non Nafarroak aukera izanen baitu gizarteak planteatzen dituen etorkizuneko erronkei konponbideak eskaintzeko.

4. Zientzian, teknologian eta berrikuntzan genero ikuspegia zeharkako kategoria gisa txerta dadila sustatzea, bai eta emakumeen eta gizonen presentzia orekatua ere Nafarroako I+G+b Sistemaren (SINAI) esparru guztietan.

**26. artikulua.** Zientzia, teknologia eta berrikuntza Planaren gutxienerako edukia.

1. Zientzia, teknologia eta berrikuntza Planak ezarriko ditu, Nafarroako Espezializazio Adimentsuaren Estrategiarekin bat, I+G+b arloko lehentasuneko arloak.

2. Zientzia, teknologia eta berrikuntza Planak honako gutxienerako eduki hauek jasoko ditu:

a) Honako hauen analisia: Nafarroan I+G+b arlorako partidak duen egoera, eta Estatuko, Europako eta nazioarteko I+G+b arloarekin duen erlazioa.

b) Honako hauen deskribapena: helburu orokorrak, lehentasun zientifikoak, teknikoak eta sozialak lehentasuneko arloetan eta behar diren teknologia estrategikoak, horien plangintza eta Estatuko eta Europako programekin duten erlazioa.

c) Honako hauen deskribapena: Nafarroako I+G+b Sistemako (SINAI) eragileak, ikerketa arloak, giza baliabideak eta azpiegiturak, adierazleak, helburuak eta beharrak.

d) I+G+b-a transferitzeko eta sustatzeko neurriak. Berrikuntza sistemako eragileekin lankidetzan I+G+b proiektuak egiteko laguntzak, Europako I+G+b proiektuetan parte hartzeko laguntzak, pizgarri fiskalak eta doktoreak enpresetan sartzeko programak garatzea.

e) Irakaskuntza zientifiko-teknikoak sustatzeko neurriak.

f) Dibulgazio zientifikorako laguntza neurriak, baita inplikaturako erakundeetarako ere, esaterako museoetarako, planetarioetarako eta zientziaren dibulgazio zentroetarako.

g) Planaren aurrekontua.

**27. artikulua.** Zientzia, teknologia eta berrikuntza Planaren lehentasunezko arloak eta teknologia estrategikoak.

1. Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak, Nafarroako I+G+b Sistemako (SINAI) eragileek eta gainerako eragileek lehentasunezko ikerketa arloak proposatuko dituzte, Nafarroako Espezializazio Adimentsuaren Estrategiaren esparruan, baita lehentasunezko arlo horietan ezarritako helburuak lortzeko behar diren teknologia estrategikoak ere. Halaber, Nafarroako I+G+b arloko Aholku Kontseiluak gomendioak egin ditzake arlo eta teknologia horiei dagokienez.

2. Lehentasunezko arlo teknologiko-estrategiko bakoitzeko, egoki diren ekintzak zehaztu beharko ditu Planak:

- a) I+G+b arloko lehentasunak.
- b) Behar diren ikertzaileak eta prestakuntza.
- c) Behar diren azpiegiturak eta zer neurritan dauden eskura.
- d) Jarduera arlo horretan zentratuak duten Nafarroako I+G+b Sistemako (SINAI) eragileak eta enpresak.
- e) Estatuan eta Europan dauden deialdiekiko sinergiak.
- f) Egokitzat jotzen diren ekintza bereziak.

3. Eskura dauden finantza baliabideen banaketa optimizatzeko, lehentasunezko arloak eta arlo teknologiko-estrategikoak zehaztuko dira halako moduz non ahalbidetuko baita I+G+b arloko plan nazional eta europarrekin identifikatzea.

**28. artikulua.** Zientzia, teknologia eta berrikuntza Plana onestea.

1. Nafarroako Gobernuari dagokio zientzia, teknologia eta berrikuntza Plana onestea, parte-hartze publikoko prozesu bat egin ondoren.

2. Behin plana onetsirik, elektronikoki argitaratuko da Nafarroako Gobernuak Interneten duen Atarian ([www.navarra.es](http://www.navarra.es)), eta herritarrentzako kontsultagai egonen da.

3. Zientzia, teknologia eta berrikuntza Plana plan estrategikoa izanen da, eta haren aurrekontua sartuko da Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren diru-laguntzen plan estrategikotan.

**29. artikulua.** Zientzia, teknologia eta berrikuntza Planaren gauzatzea eta jarraipena

1. Planak berak une bakoitzean ezartzen dituen eragileei egokituak zaie zientzia, teknologia eta berrikuntza Planeko ekintzak gauzatzea.

2. Orobat, Nafarroako Foru Komunitateak gauzatuko ditu planaren gauzatzearen eta helburuen betetze mailaren jarraipena, aldi behingo ebaluazioa eta koordinazioa, eta Nafarroako I+G+b arloko Aholku Kontseiluaren eta Nafarroako I+G+b Sistemako (SINAI) eragileen koordinatzailearen ekarpenak jaso ditzake.

**Xedapen gehigarri bakarra.** I+G+b arloko inbertsio helburua Nafarroan.

Botere publikoen jarduketara gidatzeko helburuaz, honako inbertsio helburu hauek ezartzen dira Nafarroan I+G+b arlorako:

Nafarroan, I+G-b-rako bideratutako inbertsio helburua 2030. urterako: BPGd-aren %3.

Nafarroan, sektore publikoan I+G+b-rako bideratutako inbertsio helburua 2030. urterako: BPGd-aren %1.

Nafarroan, sektore publikoan I+G-b-rako bideratutako inbertsio helburua 2030. urterako: Nafar. Aur. Orokorren %5.

| <i>Sektore publikoan I+G-b-rako bideratutako inbertsio helburua 2030. urterako, Nafar. Aur. Orokorrei eta ekarpenei dagokienez</i> | <i>Unibertsitateak</i> | <i>I+G-ren sustapena</i> | <i>I+G-rengatiko zerga-deskontuak</i> | <i>EBk Nafarroako I+G-rako egindako ekarpena</i> | <i>Estatuak Nafarroako I+G-rako egindako ekarpena</i> |
|--|------------------------|--------------------------|---------------------------------------|--|---|
| %5   | %1,6                   | %2                       | % 1                                   | %0,2   | %0,2  |
| I+G+b plangintza   | 2018                   | 2019                     | 2020                                  | 2025   | 2030  |
| Unibertsitateen portzentajea aurrekontuetan  | 1,5                    | 1,5                      | 1,5                                   | 1,5  | 1,6   |
| I+G+b-ren sustapenerako portzentajea aurrekontuetan  | 1,15                   | 1,25                     | 1,35                                  | 1,60   | 2   |
| Estatuak eta EBk Nafarroako I+G+b-rako egindako ekarpenen portzentajea, Nafarroako Aurrekontu Orokorretan                          | 0,4                    | 0,4                      | 0,4                                   | 0,4  | 0,4   |
| Zerga-deskontuaren portzentajea aurrekontuan   | 1,00                   | 1,00                     | 1,00                                  | 1,00   | 1,00  |
| % guztira: sustapena + unibertsitateak + fiskala + Estatuaren eta EBaren ekarpenak/Naf. Aur. Or.                                   | 4,05                   | 4,15                     | 4,25                                  | 4,50   | 5,00  |
| % guztira: sustapena + unibertsitateak + fiskala/BPGd  | 0,81                   | 0,83                     | 0,85                                  | 0,9  | 1,00  |

**Azken xedapenetako lehenbizikoa.** Erregelamendu bidez garatzea.

Baimena ematen zaie Nafarroako Gobernuari eta I+G+b arloan eskudun den departamentuari foru lege hau aplikatu eta garatzeko beharrezkoak diren erregelamenduzko xedapen guztiak eman ditzaten.

**Azken xedapenetan bigarrena.** Indarra hartzea.

Foru lege honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean hartuko du indarra.

---

**B saila:**  
**FORU LEGE PROPOSAMENAK**

---

**Foru Lege proposamena, zeinaren bidez aldatzen baita abenduaren 27ko 18/2017 Foru Legea, toki ogasunek transferentzia arrunten bidez Nafarroako tributuetan parte hartzeko duten funtsaren zenbatekoa eta banaketa ezartzen dituen 2018. eta 2019. urteetarako.**

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2018ko apirilaren 9an egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoaren 19.1.b) artikulua aitortzen dien legegintza-ekimena erabiliz, Ana María Beltrán Villalba andreak foru lege proposamen bat aurkeztu du, zeinaren bidez aldatzen baita abenduaren 27ko 18/2017 Foru Legea, toki ogasunek transferentzia arrunten bidez Nafarroako tributuetan parte hartzeko duten funtsaren zenbatekoa eta banaketa ezartzen dituen 2018. eta 2019. urteetarako.

Hori horrela, Legebiltzarreko Erregelamenduko 148. artikuluan ezarritakoarekin bat, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, hona

**ERABAKIA:**

**1.** Agintzea Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Foru Lege proposamena, zeinaren bidez aldatzen baita abenduaren 27ko 18/2017 Foru Legea, toki ogasunek transferentzia arrunten bidez Nafarroako tributuetan parte hartzeko duten funtsaren zenbatekoa eta banaketa ezartzen dituen 2018. eta 2019. urteetarako.

**2.** Foru lege proposamen hori Nafarroako Gobernuari igortzea, Erregelamenduko 148. artikuluan ezarritako ondorioetarako.

Iruñean, 2018ko apirilaren 9an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

**Foru Lege proposamena, zeinaren bidez aldatzen baita abenduaren 27ko 18/2017 Foru Legea, toki ogasunek transferentzia arrunten bidez Nafarroako tributuetan parte hartzeko duten funtsaren zenbatekoa eta banaketa ezartzen dituen 2018. eta 2019. urteetarako**

**ZIOEN AZALPENEA**

Azken hilabeteotan ikusten ari gara zenbait udalek legedi indarduna urratu dutela Nafarroako Foru Komunitatean lege baimendu gabeko banderak –ikurrina, kasu– udaletxeetako fatxadetan paratze aldea. Hori da zenbait epai judizialek ezarri dutena, udal horiek epaiketen kostuak ordaintzera kondenatu baitituzte.

Egoitza ofizialetan Nafarroako sinbolo ofizialak –bai eta Espainiako sinbolo ofizialak edo Erregearen argazkia ere– ez jartzeagatik ere kondenatu dituzte udalak.

Terrorismoa gogesteagatik salatzen moduko ekitaldiak ere egiten ari dira zenbait udaletan, eta alkateek ez dituzte ekiditen; esate baterako, banda terroristen edo horien kideen aldeko pintaketak.

Erakunde publikoak ez dira egon behar alkateen eta zinegotzien alderdien eta politikaren zerbitzuan. Alkateek eta zinegotziek erantzukizunak beren gain hartu beharko lituzkete baldin eta udalak –hau da, herri osoak– beren ekintzen ondorioz dirua ordaindu behar badu, diru hori herriko bizilagunek ordaintzen dituzten zergetatik eta tasetatik ateratzen baita.

Alkateek eta zinegotziek diru-kopuru bat jasotzen dute urtero, Toki ogasunek transferentzia arrunten bidez Nafarroako tributuetan parte har-



tzeko duten funtsaren zenbatekoa eta banaketa ezartzen duen legeari jarraikiz. Diru-kopuru horiek Nafarroako Gobernuak banatzen ditu, udalaren tamainaren eta zinegotzi-kopuruaren arabera.

Gure ustez, beraz, Nafarroako Gobernuaren ardura da eragozteko alkateek eta zinegotziek legea urra dezaten eta, hartara, kalte ekonomikoa eragin diezaioten ordezkatzeko duten udalari. Eta ezinezkoa baldin bada urraketa hori eragozteko, Nafarroako Gobernuak ziurtatu beharko luke, gure ustez, kalte ekonomikoa pairatzen dutenak izatea kaltea eragin duten hautetsiak, eta ez herriko bizi-lagunak.

**Artikulu bakarra.** 13. artikuluari apartatu bat gehitzea. Hona testua:

“13. artikulua.

6. Aurreko apartatuetan jasotako konpentsazioak deuseztatu edo eten eginen dira, honako kasu hauetan:

a) Epai edo auto judizialak, udalak kondenatzen dituztenak udalaren egoitzetan edo faxadetan behar ez diren sinboloak paratzearen ondorioz kostuak edo isunak ordaintzera.

b) Epai edo auto judizialak, udalak kondenatzen dituztenak udalaren egoitzetan edo faxadetan Nafarroako edo Espainiako sinboloak ez paratzearen ondorioz kostuak edo isunak ordaintzera.

c) Epai edo auto judizialak, udalak kondenatzen dituztenak kasuko udalerrian terrorismoa

goresteke ekitaldiak egiten uztearen ondorioz kostuak edo isunak ordaintzera.

Urte bakoitzerako ematen diren konpentsazioen deuseztapena edo atxikipena aplikatuko zaie aipatutako autoak edo epaiak ekarri dituzten jarduketa edo jarduketak, zuzenean edo zeharka, babesten dituzten udal eta kontzejuetako alkateari, alkatetzako taldeari eta udaletako talde eta zinegotziei.

Nafarroako Gobernuak, urtero, kasuko ekitaldi ekonomikoa itxi aitzin, egiaztatu eginen du halako autorik edo epairik ote dagoen, eta udala kostuak edo isunak ordaintzera kondenatzen duen epairik baldin badago, kasuko toki entitateari eskatuko zaio hautetsi-karguan aritzeagatik kobraturiko ordainsariak itzul ditzan. Itzulketa hori kostuen edo isunaren zenbatekoaren berdina izanen da, eta aipatutako jarduketa edo jarduketak, zuzenean edo zeharka, babesten dituzten udal eta kontzejuetako alkatearen, alkatetzako taldearen eta udaletako talde eta zinegotzien ordainsarrietatik hartuko da.

Toki entitateak eskatzen zaion kopurua itzultzen ez badu, Nafarroako Gobernuak ordaindu gabeko zorra konpentsatuko du datozen ekitaldi ekonomikoetan kontzeptu beragatik toki entitateak kobratu beharrekoaren kontura.

**Azken xedapena.** Foru lege honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitara eman eta biharamu-nean hartuko du indarra.

**E saila:**

**INTERPELAZIOAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK**

## **Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Nafarroako Hezkuntza Bereziko ikastetxeen arteko koordinazio- eta lankidetzasare bat sor dezan, horientzako erregelamendu organiko bat taxutu dezan eta Helduarora igarotzeko programak arautu ditzan.**

### *NAFARROAKO ALDERDI SOZIALISTA TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTU DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2018ko apirilaren 9an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita Nafarroako Hezkuntza Bereziko ikastetxeen arteko koordinazio- eta lankidetzasare bat sor dezan, horientzako erregelamendu organiko bat taxutu dezan eta Helduarora igarotzeko programak arautu ditzan.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Mozioa Osoko Bilkuran izapidetzea, eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2018ko apirilaren 9an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

### **MOZIOAREN TESTUA**

Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioko eledun María Chivite Navascués andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako mozio hau aurkeztu du, Osoko Bilkuran eztabaidatzeko. Mozioaren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Nafarroako Hezkuntza Bereziko ikastetxeen arteko koordinazio- eta lankidetzasare bat sor dezan, horientzako erregelamendu organiko bat taxutu dezan eta Helduarora igarotzeko programak arautu ditzan.

Hezkuntza Bereziko ikastetxeak titulartasun publiko edo pribatuko ikastetxeak dira, erantzuna ematen dietenak ikasle jakin batzuen beharri-

nei, ikasle horiek behar dituzten egokitzapen esanguratsu eta guztiz muturrekoak direla kausa, hezkuntza- eta psikopedagogia-orientazioko taldeen eta Nafarroako Hezkuntza Bereziko Baliabideen Zentroko modulu berariazkoen ebaluazioaren ondoren, ondorioztatzen denean ikastetxe arrunt batean integrazio maila guztiz txikia izanen dutela. Horiek horrela, ikastetxe horietako ikasle izanen dira hezkuntza- eta psikopedagogia-orientazioko taldeek zehazten dituztenak, ikasleen gurasoekin harremanetan jarririk.

Hezkuntza berezia ez da sistematik kanpo geratzen den hezkuntza maila bat: hezkuntza sistema orokorreko zati bat da. Ikastetxe horien eginkizunak hezkuntza sistema arrunteko hezkuntza maila dagozkie, Haur Hezkuntzako eta Lehen Hezkuntzako eta helduarora eta lanera igarotzeko etapekin. Beste alde batetik, lanbide heziketa berezi egokitua ere eskaintzen da.

Eskolatzeko adinean Lehen eta Bigarren Hezkuntzako adinak sartu ohi dira. Salbuespen gisa Haur Hezkuntzako bigarren zikloko adineko ikasleak eskolatzen dira. Era berean, helduarora eta lanera igarotzeko programan eskolatzeko adina salbuespen gisa luzatu ahalko da hogeituru arte.

Hezkuntza eta errehabilitazio arloetako arretaz gain, hezkuntza bereziko ikastetxeek ikastetxe arruntek eskaintzen dituzten zerbitzuak eskaintzen ahal dituzte: jantokia, garraioa eta egoitza, baina Nafarroako foru Komunitatean ez dago zerbitzu hori eskaintzen duen inolako ikastetxe publikorik. Hezkuntza bereziko ikastetxeek hezkuntzarako eta errehabilitaziorako langileak dituzte, bai eta zuzeneko arretarako beste profesional batzuk ere.

Eskolatzen dituzten ikasleen beharrizan zehatzten arabera, taldeetan sartzeko ahalko dituzte Pedagogia Terapeutikoko eta Entzumena eta Hizkuntzako irakasleak, bertako hizkuntzei dagozkien irakasleez gain, kasua bada, eta Gorputz Hezkuntzako irakasleak. Halaber, edukitzen ahalko dituzte fisioterapeutak, orientatzaileak, eta abar. Ikasleen beharrizanen arabera, zaintzaileak ere edukitzen ahalko dituzte.

Ikastetxe horiek profesionalizatzeko eta bokazio handiko profesionalak dituzte, egunero berrikuntzan ari direnak eta proiektu motibatzailerik bereziak sortzen dituztenak, ikasle bakoitzaren desgaitasunarekin lotutako hezkuntza-beharrizanen berezitasunetara egokitze aldera. Horregatik garrantzitsua da ikastetxe bakoitzean sortutako eta garatutako lan eta esperientzia partekatzen ahal izatea beste ikastetxe eta autonomia erkidegoetako profesionalen, are gertuko erkidegoetakoekin ere.

Nafarroan Hezkuntza Bereziko ikastetxeek ematen dituzten Helduarora igarotzeko programek ez dute berriazko araudirik. Programa horien iraupena, oro har, hiru ikasturtekoa da.

Behin onetsirik Hezkuntzari buruzko maiztasunaren 3ko 2/2006 Lege Organikoa, eta ondoren 93/2008 Foru Agindua, Nafarroako Foru Komunitateko Haur eta Lehen Hezkuntzako eta Bigarren Hezkuntzako ikastetxeetan aniztasunari nola erantzun arautzen duena, Nafarroako Foru Komunitateko Hezkuntza Bereziko ikastetxeetarako erregelamendu organikoa prestatu beharra dago, batez ere mota horretako ikastetxeetarako berriazko araudirik ez dagoelako.

Horregatik guztiagatik, Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioak honako erabaki proposamen hau aurkeztu du:

1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du Nafarroako Hezkuntza Bereziko ikastetxeen arteko koordinazio- eta lankidetzaren bat sor dezan, desgaitasun mota desberdinak dituzten ikasleei arreta eta prestakuntza ematen dieten profesionalen baliabideak, esperientziak, berrikuntzako proiektuak, metodologiak eta abar partekatze aldera.

2. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du on line plataforma bat sor dezan partekatutako material eta baliabideak eduki, profesionalen lana sarean erraztu eta profesionalen elkarrizketa eta foro bat ezartze aldera.

3. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du Nafarroako Foru Komunitateko Hezkuntza Bereziko ikastetxeetan garatzen diren Helduarora igarotzeko programak arautu dituzan, halako moduz non programa horietan sartzeko adina nola haien iraupena Lanbide Heziketa Bereziko zikloetako berberak izan diren.

4. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du Hezkuntza Bereziko ikastetxeekin batera erregelamendu organiko berri bat sor dezan, ikastetxe horien beharrizan berezietara egokituz, non lanbide-profilek erantzunen dieten ikasleen beharrizanei, hezkuntza, gizarte zein osasun arloetan.

Iruñean, 2018ko martxoaren 23an

Eleduna: María Chivite Navascués

## **Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da berdintasunari buruzko etorkizuneko legean nahiz hezkuntza- eta lan-legedian jaso dezan janzkera-askatasuna bermatuko dela eta ez dela sexuaren araberako uniformearen eraman beharra ezarriko.**

*MARÍA TERESA SÁEZ BARRAO ANDREAK AURKEZTU DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2018ko apirilaren 9an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea María Teresa Sáez Barrao andreak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita berdintasunari buruzko etorkizuneko legean nahiz hezkuntza- eta lan-legedian jaso dezan janzkera-askatasuna bermatuko dela eta ez dela sexuaren araberako uniformearen eraman beharra ezarriko.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Mozioa Osoko Bilkuran izapidetzeko, eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2018ko apirilaren 9an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

### **MOZIOAREN TESTUA**

Podemos-Ahal Dugu talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Teresa Sáez Barrao andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako mozio hau aurkezten du, Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko.

Europako Parlamentuaren 2013ko martxoaren 12ko Ebazpenak, Europar Batasunean genero-estereotipoak kentzeari buruzkoak, honela dio: “genero-rol tradizionalak eta estereotipoek oraindik eragin handia dute emakumeen eta gizonen artean rolak banatzean, etxean, lantokian eta gizartean, oro har”. Gainera, “betikotu egiten dute lehenagotik jasotako oztopen egoera, genero-berdintasuna lortzerakoan, eta murriztu egiten dituzte emakumeen garapen pertsonala eta enplegurako aukerak”.

Ebazpen horrek gomendioak xehakatzen ditu legegintzaren arloan eta gizarte esparru guztietan (hezkuntza, enplegua, kultura edo komunikabideak) neurri bereziak hartzearen inguruan. Orobat, azpimarra berezia jartzen du hezkuntzaren eta haurren esparruan, ikusirik “haurrek, txiki-txikitatik, aurre egin behar dietela genero-estereotipoei”, eta

horiek “eragiten dute gizon eta emakume gisa jokatzekoan duten pertzepzioan eta ondorioak sortzen dituzte haien bizitza osoan eta etorkizunera begira dituzten helburuetan”.

Eskolako uniformeek, sexuaren araberakoek (galtzak mutikoentzat, gona edo soinekoa neskatuentzat), kritikak jaso dituzte erakunde Europa osoko feministen aldetik, erabakigarritzat jotzen dituztelako genero-estereotipoek eskolan irauteari begira. Gainera, neskatoen jardun fisikoa mugatzen dute eta emakumeen gorputzaren objektualizazioa mantentzen dute; eta horrek, geroago, jarraipena du lan-arloan. Hain zuzen ere, Auzitegi Gorenaren 2011ko apirilaren 19ko epaiaren arabera, Espainiako Konstituzioaren 14. artikulua bermatzen duen berdintasunaren aurkakoa da osasun pribatuko ohiko jokabide bat, zeinaren bidez emakumezko laguntzaile eta erizainek “emakumezko” uniforme bat jantzi behar baitzuten, gona eta kofia barne, eta ez haien gizonetzko lankideek erabiltzen zuten eta osasun publikoa orokorra den osasun pijama, galtza eta alkandorakoa.

Lotura garbia dago gona edo soinekoaren eta feminitate tradizional baten estereotipoaren artean, desegoki bihurtuko lukeena “gizonezkoen” janzkera bat, alegia, galtzak. Izan ere, hizkera arrunteko esamolde bat, “galtzak eramatea”, aurreiritzi sexista baten isla da, familian agintea duenarena, eta horren arabera galtza metaforikoak dituen emakumea gizonezkoarenak diren egin-kizun edo eskubideak erabiltzen edo usurpatzen ari da. Era horretan, sexu-rolen banantzea, eskolako uniformearekin hasten dena betikotu egiten da lan eremuko sektore batzuetan, non emakumeen irudia eta gorputza eskaintzen baita erakarri erotiko gisa, batez ere gizonezkoen kontsumorako (hegazkineko laguntzaileak, azafatak kirol arloko sari-banaketatik edo kongresuetan, eta abar).

Joan den ikasturtearen hasieran, Erresuma Batuko ia ehun eskola publikotan kendu zuten sexuaren araberako erreferentzia janzkeraren kodeetan. Era horretan askatasuna ematen zaio haur bakoitzari ikasgelara eramateko janzkera hautatzekoan. Auzitegi Gorenaren epai batek bermatzen du Konstituzioak jasotzen duen prin-

tzipio bat, Espainiako Estatu osoko pertsona guz-tien berdintasunarena, haien sexua kaltetu gabe, enpresa pribatua janzkeraren askatasuna edukitze-koa. Horiek horrela, Nafarroako ikastetxe itun-duetan edo pribatuetan ikasleen artean sexuaren araberako janzkera ezberdina mantentzeak urratu ahalko lituzke emakumeen eta gizonen arteko ber-dintasun eraginkorraren Konstituzioko bermeak eta, gainera, genero-estereotipoak sustatu, zeinek kalte frogatua eragiten dioten emakumeen eta gizonen arteko berdintasun eraginkorra lortzeari, Europako Parlamentuaren aipatu ebazpenak zehazten duen bezala.

Horregatik guztiagatik garrantzitsutzat jotzen dugu Nafarroan prestatzen ari den berdintasunari buruzko legean sartzea eta Emakumeen eta Gizo-nen Berdintasun Eraginkorrerako 3/2007 Legean aldaketak egitea, eskolako janzkeraren gaia sar-tzeko haien artikuluetan, zehapen araubide bat barne, begiratze aldera genero-estereotipoak eta haien ondorioak desagerrarazteko neurriak bete-tzen direla, bai eta tratu eta aukera berdintasun-aren printzipioa eta emakumeen eta gizonen arteko diskriminazio eza bermatzen direla, botere publiko

jardun osoaren gida izan behar baita, aipatu lege-an jasotzen den bezala.

Horregatik guztiagatik, honako erabaki propo-samen hau aurkezten dugu:

1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gober-nua premiatzen du berdintasunari buruzko etorki-zuneko legean nahiz hezkuntza- eta lan-legedian jaso dezan janzkera-askatasuna bermatuko dela, eta ez dela sexuaren araberako uniforme eraman beharra ezarriko irakaskuntza publiko, itundu eta pribatuaren zein lanaren arloetan.

2. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du ahalik eta epe laburrene-an lanean has dadin legegintzaldi honetan oneste-ko behar diren aldaketak Emakumeen eta Gizo-nen Berdintasun Eraginkorrerako 3/2007 Legean, bai eta dagokion hezkuntza- eta lan-legedian ere, janzkera-askatasuna eta sexuaren araberako uni-forme eraman beharrik eza bermatzeko irakaskuntza publiko, itundu eta pribatuaren zein lanaren arloetan.

Iruñean, 2018ko martxoaren 26an

Foru parlamentaria: Teresa Sáez Barrao

## **Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da PFEZaren berrikusketa bat igor dezan Legebiltzar honetara, foru erkidegoaren lehiakortasunaren susperraldia jasoko duena.**

*JUAN LUIS SÁNCHEZ DE MUNIÁIN LACASIA JAUNAK AURKEZTU DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2018ko apirilaren 9an egindako bilkuran, Eledunen Ba-tzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Juan Luis Sánchez de Muniáin Lacasia jaunak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita PFEZaren berrikusketa bat igor dezan Legebiltzar honetara, foru erkidegoaren lehiakor-tasunaren susperraldia jasoko duena.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofiziale-an argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran izapidetzeta, eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2018ko apirilaren 9an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

### **MOZIOAREN TESTUA**

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxi-kita dagoen Juan Luis Sánchez de Muniáin jau-nak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritako-aren babesean, honako mozio hau aurkezten du, eztabaidatu eta bozkatzeko:

PFEZaren azken zerga-erreformen ostean, Nafarroa azkena da autonomia erkidegoen zerga-lehiakortasunaren indizean; hala jasotzen da Zer-gadunen Batasunak 2017. urteari buruz egindako azterlanean.

Nafarrak dira –bereziki, seme-alabak edo men-dekotasunen bat dutenak beren kargura dituzten familiak– Espainian traturik txarrena jasotzen dutenak. Errentaren azken kanpainan, klase ertaineko langile askok egiaztatu zuten zergen igoera bidegabea, erosahalmena galdu baitute beren egoera urte batetik bestera aldatu gabe ere. Eta

hori guztia gertatu da lauko Gobernua errealitatea ukatzen tematu delako.

Errealitate horren aldi berean jakin dugu euskal aldundiek zerga-jaitsiera bat onetsi nahi dutela apirilean, zerga-figura ia guztiak ukituko dituen, PFEZa barne.

Eta, gainera, orain orobat jakin da Espainiako Gobernuak Estatuko Aurrekontu Orokorretan jaso nahi dutela Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren jaitsiera bat.

Gauzak horrela –arloan eskumena daukaten administrazio guztiek jaitsiko dituzten errentaren gaineko zergak–, Nafarroako Gobernuak bere herritarren zerga-eskakizunak igotzen jarraitzen du, eta handituz doa Foru Komunitatean bizi ez direnek ordaintzen dutenarekiko arrakala, Nafarroan bizi, lan egin eta ordaintzen dugunon kaletan.

Administrazio guztiek, Nafarroakoak izan ezik, abiaraziko dituzten zerga-erreforma horiek, gainera, susperraldi ekonomikoa eta diru-sarreren

areagotzea gertatzen ari den testuinguru batean eginen dira. Egoerak, izan ere, horretarako bide emateaz gain, herritarrei zerga-zamaren parte bat arintzea aholkatzen du.

Hori guztia dela-eta,

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du PFEZaren berrikusketa bat igor dezan Legebiltzar honetara, foru erkidegoaren lehiakortasunaren susperraldia jasoko duena, inguruko lurraldeetan aurreikusitako zerga-aldaketak ikusita.

Berrikusketa bereziki zentratu beharko da egin diren bata bestearen ondoko zerga-igoeren ondorioz klase ertaineko eta beheko klaseko familiek eta langileek daukaten zerga-posizio bidegabea zuzentzen.

Iruñean, 2018ko martxoaren 28an

Foru parlamentaria: Juan Luis Sánchez de Muniáin

## **Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Nafarroako Datu-kudeaketaren Behatokia sor dezan eta Nafarroako big data ustiapen-politika bat gara eta normaliza dezan.**

### *NAFARROAKO ALDERDI SOZIALISTA TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTU DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2018ko apirilaren 9an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita Nafarroako Datu-kudeaketaren Behatokia sor dezan eta Nafarroako big data ustiapen-politika bat gara eta normaliza dezan.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Mozioa Osoko Bilkuran izapidetzea, eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2018ko apirilaren 9an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

### **MOZIOAREN TESTUA**

Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako mozio hau aurkezten du, Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko.

Azken asteotan zenbait gertakari izan dira munduan ezinegona eragin dutenak herritarren artean beren datuen kudeaketari eta zaintzari dagokienez. Nafarroari, gero eta digitalizatuago eta ingurunearekiko mimetizatuago baitago, auzi hau ez zaio arrotza, eta bere biztanleek, gainontzekoek bezala, kezka bizi dute haiei buruzko informazio pertsonala dela-eta Administrazioak eta enpresa pribatuak egin dezaketen kudeaketa.

Espainiak lege murriztaile eta ahaltsu bat dauka –abenduaen 13ko 15/1999 Lege Organikoa, Izaera Pertsonaleko Datuak Babesteari buruzkoa–, xede duena “izaera pertsonaleko datuen” babesa, Konstituzio Auzitegiak oinarritzko

eskubidetzat jo zuena Espainiako Konstituzioaren 18.4 artikularekin lotzean.

Europar Batasunak, 95/46/CE zuzentarauaren bidez, datuen kontrolerako agintaritz bat sortzea eskatu du. Espainian, Datuak Babesteko Espainiako Agentziaren bidez egiten da kontrol hori. Zuzentarau horrek berak ahalbidetzen du beste agentzia batzuk sortzea Europar Batasuneko estatu beraren baitan; halatan, bai Kataluniak bai Euskadik beren agentzia propioa daukate, Madrillgo Erkidegoak bere garaian egin zuen bezala.

Gure ustez, abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoak Nafarroa behar bezainbeste estaltzen du Foru Komunitatea izaera pertsonaleko datuen babesari dagokionez –hortaz, ez litzateke beharrezkoa izanen beste agentzia bat sortzea–, baina pauso bat harago joan behar dela uste dugu, halako moduan non kontrol eta informazio tresna bat ezarriko bailitzateke industrian, merkataritzan, politikan eta gizartean gero eta garrantzi handiagoa hartzen ari den arlo batean –datuen arloan–, mugitzen garen bizitzako arlo ia-ia guztiak ukituz.

Tresna horrek –behatoki bat izan liteke besterik gabe– begiratu beharko luke izaera pertsonaleko datuak babesteari buruzko Legea zorroztz betetzen dela Nafarroan, eta ezagutzera eman beharko luke zer mehatxu ekar liezaiekeen datuen erabilera zilegiak beren informazioa borondatez ematen duten erabiltzaileei. Halaber, aukeren kapituluan, begiratu luke informazioa ahal den guztia ustiatzen dela guztion hobe beharrez; adibidez, osasungintzako big datako proiektu publikoe-

tan, iruzurraren aurkako borrokan, hezkuntza hobetzean, komunikazioen operatibitatean, nekazaritzaren efizientzian, eta abar. Hori guztia, pertsonen konfidentzialtasunari eta intimitateari buruzko jarraibideak betez.

Erabaki proposamena:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuaren premiatzen du honako hauek egin ditzan:

– Nafarroako Datu-kudeaketaren Behatokia sor dezan, inplikaturako departamentuekin koordinatuta eta Informatikaren, Telekomunikazioen eta Berrikuntza Publikoaren Zuzendaritza Nagusiaren gidaritzapean begiratu dezan Foru Komunitatean erabilera egokia ematen zaiela izaera pertsonaleko datuei, eta herritarrek Nafarroan nahiz Espainian, Europan edo munduko beste edozein tokitan beren datuak erakunde bati, entitate bati edo pertsona fisiko bati lagatzen dizkiotenean dauzkaten eskubideei, betebeharrei eta arriskuei buruzko informazio-estrategia bat gara dezan.

– Nafarroako big dataren ustiapen-politika bat gara eta normaliza dezan, guztion onuraren mesedetan; esate baterako, Nafarroako Osasun Zerbitzuaren ikerketan eta diagnostikoan, Foru Ogasunaren iruzurraren aurkako borrokan, gure erkidegoko nekazaritzako ustiapenaren efizientzian edo hezkuntzako aukera-berdintasunean, herritarrei informazio argia emanez beren datuei ematen ari zaien erabilerari buruz.

Iruñean, 2018ko apirilaren 4an

Eleduna: María Chivite Navascués

**Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da “agenda nazionalista” lehenesteari utz diezaion eta ekimenak har ditzan eta neurriak proposa ditzan Nafarroak une hau baliatze aldera bere hazkuntza ekonomikoari eta bere autonomia fiskal eta finantzarioari begira daukan ahalmen osoa optimizatzeko.**

*JOSÉ JAVIER ESPARZA ABAURREA JAUNAK AURKEZTU DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2018ko apirilaren 9an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea José Javier Esparza Abaurrea jaunak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita “agenda nazionalista” lehenesteari utz diezaion eta ekimenak har ditzan eta neurriak proposa ditzan Nafarroak une hau baliatze aldera bere hazkuntza ekonomikoari eta bere autonomia fiskal eta finantzarioari begira daukan ahalmen osoa optimizatzeko.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Mozioa Osoko Bilkuran izapidetzea, eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2018ko apirilaren 9an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

**MOZIOAREN TESTUA**

Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioko kide Javier Esparza Abaurrea jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, Osoko Bilkuran eztabaidatzeko honako mozio hau aurkezten du, Mahaian eta Eledunen Batzarrean izapidetzeko:

Legegintzaldia hasi zenetik, argi dago “agenda nazionalista” Nafarroako Gobernuaren funtsezko helburua izan dela, eta albo batera utzi dituela “agenda” horrekin zerikusirik ez daukaten gainontzeko gaiak. Halatan, Nafarroaren garapen ekonomikoa bultzatzeko neurrien arrastorik ez dago. Foru Komunitatean eginen diren muntako inbertsio bakarrak dira Nafarroako Gobernuaren esku-menekoak ez direnak. Gobernuaren ekimen falta horren ondorioa da erkidegoaren hazkundera ekonomia hazkunde orokorraren arabera izatea.

Nafarroa ez da egoeraz aprobetxatzen ari, eta egoera ekonomikoaren balorazioak Kataluniaren atzean baino ez du kokatzen; etorkizunean konfiantzarik gutxien duena da, eta lehena da inpaktu fiskal okerrari dagokionez.

Horregatik guztiagatik, honako erabaki proposamen hau aurkezten dugu:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du “agenda nazionalista” lehenesteari utz diezaion eta ekimenak har ditzan eta neurriak proposa ditzan Nafarroak une hau baliatze aldera bere hazkuntza ekonomikoari eta bere autonomia fiskal eta finantzarioari begira daukan ahalmen osoa optimizatzeko.

Iruñean, 2018ko apirilaren 5ean

Eleduna: Javier Esparza Abaurrea



## **Mozioa. Horren bidez, Hezkuntza Departamentua premiatzen da berariazko jarduketa plan bat egin dezan eskola-porrotari aurre egiteko eta derrigorrezko irakaskuntzetako ikasleen igarotze-tasak areagotzeko.**

*ALBERTO CATALÁN HIGUERAS JAUNAK AURKEZTU DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2018ko apirilaren 9an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Alberto Catalán Higuera jaunak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Hezkuntza Departamentua premiatzen baita berariazko jarduketa plan bat egin dezan eskola-porrotari aurre egiteko eta derrigorrezko irakaskuntzetako ikasleen igarotze-tasak areagotzeko.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Mozioa Hezkuntza Batzordean izapidetzea, eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2018ko apirilaren 9an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

### **MOZIOAREN TESTUA**

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikita dagoen Alberto Catalán Higuera jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako mozio hau aurkezten du, Hezkuntza Batzordean eztabaidatzeko.

Nafarroako Eskola Kontseilua-Hezkuntza Batzorde Nagusiak 2016-2017 ikasturteari buruz egindako txostena azaltze aldera Hezkuntza Batzordean egindako agerraldian, erakunde horretako lehendakariak besteak beste adierazi zuen "Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan handiegia dela eskola-porrota".

Orobat adierazi zuen porrota dela "Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza egiten duten gizonezkoen % 71 soilik igarotzea mailaz. Lortu behar duguna da gizonezkoen eta emakumezkoen % 100 igarotzea. Hori lortzeko, Europako beste herrialde batzuetan auzitan jartzen ez diren hezkuntza-politikak egin behar dira. Ezin da halako emaitzarik onartu".

Nafarroan, beste autonomia erkidego batzuetan baino handiagoa da hurrengo mailara

igarotzen diren ikasleen portzentajea, baina ezin gara horrekin kontentatu. Hezkuntza-emaitzarik onenak dauzkaten Europako herrialdeek izan behar dute, baita auzi honetan ere, Nafarroako hezkuntza-sistemaren erreferentea.

Haur Hezkuntzako bigarren, laugarren eta sei-garren mailan, azken urteotako datuen arabera, ikasleen ia % 97 igarotzen da batez beste hurrengo mailara –nahiz eta aldea dagoen sareen artean–, baina Nafarroako Eskola Kontseilua-Hezkuntza Batzorde Nagusiaren lehendakariak adierazi zuenez, %100era heldu beharko ginatke. DBHaren kasuan, lau mailen batez bestekoa % 89,87koa litzateke txosten horren arabera. Batxilergoko bi mailetan, igarotzen diren ikasleen batez bestekoa % 85,38koa da. Eta DBHaren kasuan bezala, aldea dago ikastetxe publikoen eta itunpekoen artean. Gizonezkoen eta emakumezkoen artean ere badago aldea, bereziki DBHn; izan ere, txostenak jasotzen duenez, alde hori 10 puntukoa da DBHko 1. eta 2. mailan, eta 7 puntukoa, berriz, 3. eta 4. mailan.

Eskola-uztearen tasari dagokionez ere Nafarroan ematen da autonomia erkidegoen arteko portzentaje txikienetarikoa bat, baina hori ezin da eragozpena izan portzentajea are gehiago jaisteko neurriak aplikatzen jarraitzeko.

Adituek hainbat arrazoi ematen dute auziari ekiterakoan. Lehenengo eta behin, ikaslearen beraren zailtasunak (arreta-defizitaren edo hipe-raktibitatearen nahasmendua, dislexia, desgaitasuna, eta abar) eta familien premia sozioekonomikoak, eta ondoren familiaren eta eskolaren arteko konplizitate-falta, sistemaren ezegonkortasuna, arrazoi pedagogikoak, lan-egoera eta irakasleen prestakuntza, eta abar.

Nafarroako hezkuntza-errealitateak bide eman behar du Hezkuntza Departamentuak anbizio handiagoa izan dezan igarotze-tasak handitzeko eta eskola-porrotarenak jaisteko; bereziki, hezkuntzaren derrigorrezko etapetan. Bi helburu horiek lehentasuna izan behar dute Nafarroako hezkuntza-sistemarentzat; bereziki, sistemaren arduradun gorenentzat, zeinek egintzen eta aurrekontu zehatzen bidez frogatu beharko baitute hori horrela dela.

Hori dela-eta, honako erabaki proposamen hau aurkezten dugu:

Nafarroako Parlamentuak Hezkuntza Departamentua premiatzen du berariazko jarduketa plan bat egin dezan Nafarroako hezkuntza-sistemako eskola-porrotari aurre egiteko eta derrigorrezko irakaskuntzetako ikasleen igarotze-tasak areagotzeko Planak jaso egin beharko ditu zer neurri zehatz garatuko diren eta zer aurrekontu-premia egonen den den plana 2018-2019 ikasturtean garatzeko.

Corellan, 2018ko apirilaren 4an

Foru parlamentaria: Alberto Catalán Higuera

## **Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernuak premiatzen da % 0,7aren banaketa alda dezan eta Espainiako gainontzeko tokiekin berdindu dezan, Eliza Katolikoaren eta gizarte-intereseko beste xede batzuen laukitxoak markatzen diren kasuetan.**

### *ANA MARÍA BELTRÁN VILLALBA ANDREAK AURKEZTU DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2018ko apirilaren 9an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Ana María Beltrán Villalba andreak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernuak premiatzen baita % 0,7aren banaketa alda dezan eta Espainiako gainontzeko tokiekin berdindu dezan, Eliza Katolikoaren eta gizarte-intereseko beste xede batzuen laukitxoak markatzen diren kasuetan.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Mozioa Osoko Bilkuran izapidetzea, eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2018ko apirilaren 9an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

### **MOZIOAREN TESTUA**

Nafarroako Alderdi Popularreko foru parlamentarien elkarteko Ana María Beltrán Villalba andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako mozio hau aurkeztu du, Osoko Bilkuran eztabaidatu eta onesteko. Mozioaren bidez, Nafarroako Gobernuak premiatzen da % 0,7aren funts-banaketa alda dezan eta Espainiako gainontzeko tokiekin berdindu dezan, Eliza Katolikoaren eta gizarte-intereseko beste xede batzuen laukitxoak markatzen diren kasuetan.

Bai Espainian, bai Espainiako gainontzeko tokietan, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren zergadunen esku dago beren aitortpenaren kuota osoaren % 0,7 bideratzea Eliza katolikoaren sostengu ekonomikoan laguntzera eta/edo gizarte intereseko beste xede batzuetara, bai eta inolako hauturik ez egitea ere.

Baldin eta zergadunak laukitxoetako bat bakarrik markatzen badu, aukera horretara bideratuko da PFEZaren kuota osoaren % 0,7, eta ez baldin bada inolako hauturik egiten, Estatuko aurrekontu orokorreko egotziko zaie, xede orokorretarako, edo Nafarroako aurrekontu orokorreko, Foru Komunitatearen kasuan.

Nafarroako zergadunen eta Espainiako gainontzeko zergadunen arteko aldea gertatzen da bi aukerak markatzen badira; hau da, bai Eliza Katolikoa bai gizarte-intereseko beste xede batzuk finantzatzea hautatzen bada.

Espainiako edozein erkidegotan bi laukitxoak markatuz gero, zergadunak % 0,7 bideratzen du aukeretako bakoitzerako; hau da, kuota osoaren % 1,4. Nafarroan, ordea, bi aukerak hautatzean, herritarrak % 0,35 bideratzen du horietako bakoitzerako; hau da, hautatutako bi xedeen artean banatzen da % 0,7 hori.

Halatan, Nafarroako entitateek eta GKE-ek garatzen dituzten gizarte-programek, bai eta Eliza Katolikoak egiten duen lanak ere, egoera okerragoa dute % 0,7aren banaketa egitean gainontzeko autonomia erkidegoetan duten egoera baino.

Egoera hori berdindu beharra dago, Nafarroako GKE-ek eta Eliza Katolikoak pairatzen dituzten kalteak ekiditeko.

Horregatik guztiagatik, honako erabaki proposamen hau aurkezten dugu:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du Pertsona Fisikoen Errentaren

gaineko Zergaren aitortpenen % 0,7aren funts-banaketa alda dezan, % 0,7 osorik bidera dakion bi aukeretako bakoitzari, banaketarik gabe, Eliza Katolikoaren eta gizarte-intereseko beste xede batzuen laukitxoak markatzen diren kasuetan.

Iruñean, 2018ko apirilaren 5ean

Foru parlamentaria: Ana María Beltrán Villalba

---

## **Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da osasun-zentroetan kirurgia txikiko praktika klinikoa ziurtatuko duen araudi bat presta dezan.**

### *OSASUN BATZORDEAN IZAPIDETZEA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2018ko apirilaren 9an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, hurrengo erabakia hartu zuen, besteak beste:

1. Xedatzea Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita osasun-zentroetan kirurgia txikiko praktika klinikoa ziurtatuko duen araudi bat presta dezan, Osasun

Batzordean izapidetu dadin. Mozioa 2018ko urtarrilaren 19ko 6. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

2. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2018ko apirilaren 9an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

---

## **Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak bere ateak nafar guztientzat irekita izateko borondatea agertzen baitu, edozein direla ere haien sinesmen eta ideiak.**

### *ELEDUNEN BATZARRAK ONETSIA*

Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak, 2018ko apirilaren 9an egindako bilkuran, ondoko adierazpena onetsi zuen:

“Nafarroako Parlamentuak bere ateak irekita izateko borondatea agertzen du, nafar guztiak,

edozein direla ere haien sinesmen eta ideiak, bai eta katolikoak ere, denon ordezkari den erakundearen egoitzan babestuta senti daitezen”.

Iruñean, 2018ko apirilaren 9an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

## **Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak babesten baitu “Altsasu Gurasoak” taldeko familiek deitutako manifestazioa.**

### *ELEDUNEN BATZARRAK ONETSIA*

Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak, 2018ko apirilaren 9an egindako bilkuran, ondoko adierazpena onetsi zuen:

“Nafarroako Parlamentuak babesten du “Altsasu Gurasoak” taldean bildutako familia ukituek eta “Altsasukoak Aske Herri Plataforma” babes-plataformak deitutako manifestazioa eta dei egiten die Nafarroako herritarrei bertan parte har deza-

ten. Manifestazioa heldu den apirilaren 14an, larunbata, 17:30ean egingen da Iruñean “Justizia. Ez da terrorismoa” lelopean, giza eskubideekiko, askatasunekiko eta berme demokratikoekiko konpromisoa agertzeko xedez”.

Iruñean, 2018ko apirilaren 9an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

---

**F saila:**  
**GALDERAK**

---

## **Galdera, Nafarroako Gobernuak foru parlamentarien informazio-eskariei erantzuten berandutzeari edo ez erantzuteari buruzkoa.**

*ANA MARÍA BELTRÁN VILLALBA ANDREAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2018ko apirilaren 9an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ana María Beltrán Villalba andreak aurkeztutako galdera, Nafarroako Gobernuak foru parlamentarien informazio-eskariei erantzuten berandutzeari edo ez erantzuteari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Foru Araubideko Batzordean izapidetzea.

Iruñean, 2018ko apirilaren 9an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

### **GALDERAREN TESTUA**

Nafarroako Alderdi Popularreko foru parlamentarien elkarteko eledun Ana María Beltrán Villalba andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, Nafarroako Gobernuak lehendakariak Foru Araubideko Batzordean ahoz erantzun dezan:

Gobernua zergatik berandutzen da edo ez die erantzuten foru parlamentariak egindako informazio-eskariei?

Iruñean, 2018ko martxoaren 26an

Foru parlamentaria: Ana María Beltrán Villalba

## **Galdera, Nafarroan erlijioiko ikastorduk murrizteko komenigarritasunari buruzkoa.**

*ANA MARÍA BELTRÁN VILLALBA ANDREAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2018ko apirilaren 9an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ana María Beltrán Villalba andreak aurkeztutako galdera, Nafarroan erlijioiko ikastorduk murrizteko komenigarritasunari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Foru Araubideko Batzordean izapidetzea.

Iruñean, 2018ko apirilaren 9an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

### **GALDERAREN TESTUA**

Nafarroako Alderdi Popularreko foru parlamentarien elkarteko eledun Ana María Beltrán Villalba andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, Nafarroako Gobernuak lehendakariak Foru Araubideko Batzordean ahoz erantzun dezan:

Nafarroako Gobernuak lehendakariaren ustez, egokia al da Nafarroan erlijioiko ikastorduk murriztea?

Iruñean, 2018ko martxoaren 26an

Foru parlamentaria: Ana María Beltrán Villalba

## **Galdera, lan-eskaintza publiko berezian deitutako lanpostu-kopuruari buruzkoa.**

*MARÍA INMACULADA JURÍO MACAYA ANDREAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2018ko apirilaren 9an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea María Inmaculada Jurío Macaya andreak aurkeztutako galdera, lan-eskaintza publiko berezian deitutako lanpostu-kopuruari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2018ko apirilaren 9an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

### **GALDERAREN TESTUA**

Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioari atxikita dagoen foru parlamentari Inma Jurío Macaya andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduak ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egiten du, Nafarroako Gobernuko Lehendakarietzako, Funtzio Publikoko, Barneko eta Justiziako kontseilariak Osoko Bilkuran ahoz erantzuteko.

2.137 lanpostuko lan-eskaintza publiko berezia ikusita:

Zer balorazio egiten duzu deitutako lanpostu-kopuruari buruz?

Iruñean, 2018ko martxoaren 26an

Foru parlamentaria: Inma Jurío Macaya

## **Galdera, jakiteko ea zertan den honako erabaki hau: Nafarroako Gobernua premiatzen da animalien babesari eta ongizateari buruzko egungo araudia berrikus eta egunera dezan.**

*MARÍA TERESA SÁEZ BARRAO ANDREAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2018ko apirilaren 9an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea María Teresa Sáez Barrao andreak aurkeztutako galdera, jakiteko ea zertan den honako erabaki hau: Nafarroako Gobernua premiatzen da animalien babesari eta ongizateari buruzko egungo araudia berrikus eta egunera dezan.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2018ko apirilaren 9an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

### **GALDERAREN TESTUA**

Podemos-Ahal Dugu talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Teresa Sáez Barrao andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuarekin bat, galdera hau aurkezten du, hurrengo Osoko Bilkuran Nafarroako Gobernuko Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazio kontseilariak ahoz erantzun dezan.

Nafarroako Parlamentuak honako hau dioen erabakia onetsi zuen 2017ko irailaren 14an egindako Osoko Bilkuran: Nafarroako Gobernua premiatzen da animalien babesari eta ongizateari buruzko egungo araudia berrikus eta egunera dezan. Zertan da erabaki hori?

Iruñean, 2018ko martxoaren 26an

Foru parlamentaria: Teresa Sáez Barrao

## **Galdera, Iruñeko espetxeko presoek osasun laguntza publiko, unibertsal eta doakoa izateko eskubideari buruzkoa.**

*SERGIO SAYAS LÓPEZ JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2018ko apirilaren 9an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Sergio Sayas López jaunak aurkeztutako galdera, Iruñeko espetxeko presoek osasun laguntza publiko, unibertsal eta doakoa izateko eskubideari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2018ko apirilaren 9an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

### **GALDERAREN TESTUA**

Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioko Sergio Sayas López jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egiten du, Nafarroako Gobernuko lehendakariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

– Gobernuak ez al du uste Iruñeko espetxeko presoek eskubidea dutela osasun laguntza publiko, unibertsal eta doakoa izateko?

Iruñean, 2018ko martxoaren 27an

Foru parlamentaria: Sergio Sayas López

## **Galdera, enplegu sozial babestuko 2018ko deialdian kaltetutako toki entitatei buruzkoa.**

*NURIA MEDINA SANTOS ANDREAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2018ko apirilaren 9an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Nuria Medina Santos andreak aurkeztutako galdera, enplegu sozial babestuko 2018ko deialdian kaltetutako toki entitatei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2018ko apirilaren 9an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

### **GALDERAREN TESTUA**

Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioari atxikita dagoen Nuria Medina Santos andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduak ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egiten du, Eskubide Sozialetako kontseilariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Enplegu sozial babestuko 2018ko deialdian zergatik gertatu dira kaltetuta zenbait toki entitate?

Iruñean, 2018ko martxoaren 28an

Foru parlamentaria: Nuria Medina Santos

## **Galdera, Nafarroako Gobernuak Tafallako Errekoletoen komentuan 2018an eginen dituen inbertsioei eta jarduketan egutegiari buruzkoa.**

*CRISTINA ALTUNA OCHOTORENA ANDREAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2018ko apirilaren 9an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Cristina Altuna Ochotorena andreak aurkeztutako galdera, Nafarroako Gobernuak Tafallako Errekoletoen komentuan 2018an eginen dituen inbertsioei eta jarduketan egutegiari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2018ko apirilaren 9an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

### **GALDERAREN TESTUA**

Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioko Cristina Altuna Ochotorena andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egiten du, Nafarroako Gobernuak Kultura, Kirol eta Gazteriako kontseilariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

– Nafarroako Gobernuak zer inbertsio eginen ditu Tafallako Errekoletoen komentuan 2018an eta zein izanen da jarduketan egutegia?

Iruñean, 2018ko martxoaren 28an

Foru parlamentaria: Cristina Altuna Ochotorena



## **Galdera, adingabeentzako laguntza-kontratuei buruzkoa.**

*MÓNICA DOMÉNECH LINDE ANDREAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2018ko apirilaren 9an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Mónica Doménech Linde andreak aurkeztutako galdera, adingabeentzako laguntza-kontratuei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agintutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2018ko apirilaren 9an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

### **GALDERAREN TESTUA**

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikita dagoen Mónica Doménech Linde andreak,

Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hauek aurkezten ditu, Eskubide Sozialetako lehendakariordeak idatziz erantzun ditzan:

– Zertan da Xilemako adingabeentzako laguntza-kontratuaren berritzea?

– Berritu al da jada Nuevo Futuroko adingabeentzako laguntza-kontratua?

– Bi entitate horiei dagokienez (Xilema eta Nuevo Futuro), adierazi ea kontraturik sinatu den ala sinatuko den, eta, baiezkoan, zer baldintzatan.

– Ituna egingen baldin bada, baldintzen xehetasunak.

– Lizitazioen atarian baldin badaude, lizitazio bakoitzaren datak. Lizitatzeke baldin badago, zergatik ez den lizitatu.

Iruñean, 2018ko martxoaren 27an

Foru parlamentaria: Mónica Doménech Linde

## **Galdera, “Corellako Arteak” izeneko natur monumentuari buruzkoa.**

*ALBERTO CATALÁN HIGUERAS JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2018ko apirilaren 9an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Alberto Catalán Higuera jaunak aurkeztutako galdera, “Corellako Arteak” izeneko natur monumentuari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agintutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2018ko apirilaren 9an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

### **GALDERAREN TESTUA**

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikita dagoen Alberto Catalán Higuera jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduko 188. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoaren babesean, honako galdera hauek aurkezten ditu, idatziz erantzun dakizkion:

– Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentuak zer egin du berriki “Corellako Arteak” izeneko natur monumentua babesteko?

– Zein da natur monumentu horren egoera?

– Zer jarduketa aurreikusi dira aurten egiteko?

Corellan, 2018ko apirilaren 5ean

Foru parlamentaria: Alberto Catalán Higuera

## **Galdera, N-232 errepidearen Errioxako tartean ibilgailu astunak ibiltzea debekatu izanak eragindako egoerari buruzkoa.**

*ALBERTO CATALÁN HIGUERAS JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2018ko apirilaren 9an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Alberto Catalán Higuera jaunak aurkeztutako galdera, N-232 errepidearen Errioxako tartean ibilgailu astunak ibiltzea debekatu izanak eragindako egoerari buruzkoa.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agintutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2018ko apirilaren 9an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

### **GALDERAREN TESTUA**

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikita dagoen Alberto Catalán Higuera jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hauek aurkezten ditu, idatziz erantzun dakizkion:

Garapen Ekonomikorako Departamentuari eskatzen diogu honako galdera hauei erantzun diezaien, N-232 errepidearen Errioxako tartean

ibilgailu astunak ibiltzea debekatu izanak eragindako egoera dela eta.

– Lortu al da Sustapen Ministerioarekiko eta Audenasarekiko behin betiko akordiorik A-68an eta AP-15ean lotune berri bat jartzeko?

– Zertan datza akordioa?

– Zer epe ezartzen ditu akordioak abian jartzeko?

– Zer aurrekontu behar izanen da?

– Zein dira 121-C errepide nazionalako edukiera-datuak?

– Zein dira NA-134 errepide nazionalan egindako edukiera-neurketak?

– Sustapen Ministerioarekiko eta Audenasarekiko akordiorik lortu al da AP-68ko Tuterako lotu-nearen sarreran eta irteeran konponbide bat emateko bertatik igarotzen diren kamioei, halako moduan non ez duten Tuterako lotunetik irten eta berriro sartu behar bi gobernuak ezarritako bidesari-beherapena baliatu ahal izateko?

– Nafarroako Gobernuak ba al du inolako neurririk hartzeko asmorik, AP-68a ez hartzearen Nafarroako beste errepide batzuetatik ibiltzen ari diren kamioien joan-etorrien ondorenak arintzeko?

Corellan, 2018ko apirilaren 5ean

Foru parlamentaria: Alberto Catalán Higuera

## **Galdera, LGTBI+ pertsonen berdintasun sozialari buruzko ekainaren 19ko 8/2017 Foru Legea betetzeari buruzkoa.**

### *HERRITARREKIKO ETA ERAKUNDEEKIKO HARREMANETAKO BATZORDEAN IZAPIDETZEA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2018ko apirilaren 9an egindako bilkuran, Eledunen Batzarri entzun ondoren, hurrengo erabakia hartu zuen, besteak beste:

1. Xedatzea María Teresa Sáez Barrao andre-ak aurkezturiko galdera, LGTBI+ pertsonen berdintasun sozialari buruzko ekainaren 19ko 8/2017 Foru Legea betetzeari buruzkoa, Herritarrekiko eta Erakundeekiko Harremanetako Batzordean

izapidetu dadin. Galdera 2018ko otsailaren 20ko 20. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

2. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2018ko apirilaren 9an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

---

## **Galdera, 2018 eta 2019rako lan-eskaintza publikoan berdintasuneko emakume agente edo teknikari lanpostuak jasotzeko aurreikuspeni buruzkoa.**

### *HERRITARREKIKO ETA ERAKUNDEEKIKO HARREMANETAKO BATZORDEAN IZAPIDETZEA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2018ko apirilaren 9an egindako bilkuran, Eledunen Batzarri entzun ondoren, hurrengo erabakia hartu zuen, besteak beste:

1. Xedatzea María Teresa Sáez Barrao andre-ak aurkezturiko galdera, 2018 eta 2019rako lan-eskaintza publikoan berdintasuneko emakume agente edo teknikari lanpostuak jasotzeko aurreikuspeni buruzkoa, Herritarrekiko eta Erakunde-

kiko Harremanetako Batzordean izapidetu dadin. Galdera 2018ko apirilaren 5eko 39. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

2. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2018ko apirilaren 9an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

## **Galdera, sexu- eta ugalketa-osasunaren arloko prestazio sanitarioen antolamendua ezartzen duen azaroaren 16ko 103/2016 Foru Dekretuaren betetze-mailari buruzkoa.**

### *GALDERA ERRETIRATZEA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2018ko apirilaren 9an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Adieraztea jakinaren gainean dagoela María Teresa Sáez Barrao andreak aurkezturiko galdera erretiratu duela. Galdera sexu- eta ugalketa-osasunaren arloko prestazio sanitarioen antolamendua ezartzen duen azaroaren 16ko 103/2016 Foru

Dekretuaren betetze-mailari buruzkoa zen, eta 2018ko otsailaren 16ko 19. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

**2.** Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

Iruñean, 2018ko apirilaren 9an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza